





5

Esperientzia
zehatz bat,
VOLPA boluntariora



Pedro Arrupe boluntario-programa (VOLPA), 15 urteko esperientzia duen nazioarteko boluntario-programa da. Programa honen barruan, nazioarteko boluntario-esperientzia bat izateko aukera eskaintzen da, urte bat edo biko iraupenez, Latinoamerikako herrialdeetan batez ere, kultura desberdineko pertsonekin eta testuinguru desberdinetan, topaldi bat eta bizipen bat izateko interesa duten pertsonentzat.

Programa honetan, Iparraldean edo Hegoaldean, era batera edo bestera lagundu eta parte hartu duten pertsoneri esker; boluntarioak, laguntzaileak, hezitzaileak eta antolatzaileak, VOLPAren helburu nagusienetako bat bete ahal izan da: eraldaketa soziala. Eraldaketa honek eskatzen du, gogoeta, testuinguru eta baldintza desberdinetako proposamenei egokitzea, hauen emaitzak izan baitira, era berean, VOLPA programa bera eratzen eta definitzen joan direnak.


Hamabost urte hauetan, VOLPA, kultura-arteko gaien ezagutza eta esperientzia sail bat sortzen joan da, oraindik bildu eta sistematizatuak izan ez badira ere. Horregatik, programa honetan parte hartu duten pertsonekin azterketa kualitatibo eta kuantitatibozko lan bat egin dugu. Horretan, zenbait alderdi ikasi ditugu, ondoren, hurrengo apartatuan, aurkezpenaren ondoren datozenak, programaren xehetasun pixka batekin.

VOLPA programa

Pedro Arrupe Boluntariotza, giza desberdintasunak betiketzen dituzten jarrera sozial eta kulturalak aldatzeko lanean diharduen nazioarteko boluntario-programa bat da. 1991 urtean sortu zen, Jesusen Lagundiaren boluntario-sare bezala, Espainian, “justizian eta solidaritatean oinarritutako kultura berri bat sortzen laguntzeko misioa” bere eginez (VOLPA memoria 1988, 2. or.). Eginkizun hau burutzeko, VOLPA programatik, boluntarioen aukeraketa, prestakuntza eta bidaltze lanez arduratzen da, Hegoaldeko garapen proiektuetara, urtebeterako da baina bi urtetara luza daitekeelarik.

VOLPA programa, batez ere, boluntario-programa da, boluntarioek mantentzen eta sustatzen dutena. Prestatzaileak, boluntario gisa hara irten nahi dutenak, eta harrerako erakundeetako pertsonak dira beraren oinarria osatzen dutenak, eta denboran zehar hau mantentzea eta beronek arrakasta izatea ahalbidetu dutenak. Historian zehar, izan dira VOLPAren ordezkariak, boluntarioak bidaltzen ziren herrialde desberdinetan. Pertsona hauek ziren, boluntarioen eta harrerako erakundeetako arduradunen arteko bitartekariak, eta logistika mailako beharrez eta lagun egiteaz arduratzen zirenak. Hala ere, nahiz eta herrialde hauetan ordezkariak izan, VOLPA beti izan da estatu mailako erakundea, Espainiako Estatu osoan ordezkariak izanez.

Une bakoitzeko ahalbideei, baliabideei eta premiei erantzunez, VOLPA era desberdinetan eratu da denboran zehar. Hasiera batean, nazioarteko boluntariotzaren aukera, norbanakoei edo talde txikiei eskainiz hasi zen, alde zuzeneko kontaktua zegoen leku haietan urtebeteko edo bi urteko egonaldia bideratuz. Jesuiten Probintzialak izendatzen zituen, jesuita-probintzia bakoitzean, VOLPA boluntariotzaren pertsona arduradunak. Era horretan, VOLPAren barne antolaketa, sei saretan egituratzen zen, sei jesuita-probintzien arabera (17. grafikoa).



17. laukia. VOLPA sarearen mapa probintziak



Ondoren, VOLPA programaren ezaugarri nagusiak, bere helburuak eta ekintza-lerroak aurkezten dira, eta baita, programa hau posible egiten duten hautaketa, prestakuntza, bidaltze, lagun egite, komunikazio eta itzulera prozesu guztiak ere. Azkenik, gogoetaren emaitzak eta, 2005eko apirilean, erakundeak zuen etorkizuneko ikuspegia aurkezten dira.

Helburuak eta ekintza-lerroak

VOLPA erakundearen funtsezko helburuak beti izan dira:

- ✓ Herrien eta pertsonen hurbiltasunaren bidez topaketarako bideak ahalbidetu.
- ✓ Boluntarioen artean balio berriak eta bizi-konpromisoa eragin.
- ✓ Sentsibilizazioa eta aldaketa soziala bultzatuko duten eragileen prestakuntza sustatu.

Helburu hauek lortzeko, boluntarioen esperientziaren beraren arabera definitutako hiru unetan egituratzen den lana eskatzen da:

- ✓ **Aurretik:** bere une giltzarriak, hautaketa prozesua (nola boluntarioarena, hala harrera tokiko pertsonarena), prestakuntza eta lagun egitea direlarik. Une honetan, gune indibidualak edo pertsonalak taldeko guneekin konbinatzen dira.
- ✓ **Bitartean:** boluntario-esperientzia bizitzeko unea da, eta hor, lagun egitearekin (bidalitako erakundetik, VOLPA programarena eta harrerako erakundearena) eta prestakuntzarekin jarraitzen da, testuinguru zehatzean eta garatu beharreko eginkizun espezifikoan zentratuago, une honetan.
- ✓ **Ondoren:** esperientziatik “itzultzeko” unearen laguntza delarik osagai giltzarri eta funtsezkoa, boluntario-ondoreneko taldeen markoan, topaketetan edo elkarrizketa pertsonaletan.

Bere historiako uneren batean zalantzan jarri dira, indar handiz, bere helburuak, Iparraldeko lanari eta presentziari buruzkoak bakarrik zirela leporatuz, eta ez Hegoaldekoak. Behin baino gehiagotan planteatu da VOLPAko eztabaidetan, nazioarteko boluntariotza sustatzen duen erakunde bat baldin bada, bi norabideetan beharko lukeela esanez, Iparraldetik Hegoaldera eta Hegoaldetik Iparraldera. Nahiz eta, Hegoaldeko boluntario-erakundeekin harremanak izan eta gogoetak partekatu, behin ere ez gara helburuak aldatzera iritsi, ezta programaren aldebiotasuna ezartzera ere, kasu gehienetan zailtasun operatiboengatik.

Anitzak dira VOLPA programaren ekintza-lerroak. Batzuk, VOLPA programa beraren martxarako beharrezkoak izan dira, eta beste batzuk programaren garapenarekin sortu dira. Ondoren aurkezten ditugu nabarmenenak:

- ✓ Boluntario-proposamenaren zabalkundea, Iparralde eta Hegoaldearen arteko harremanaren alderdi bat gehiago bezala.
- ✓ Inplikazio aukeren eskaintza, Hegoaldean: hautatze irizpideak.
- ✓ Prestakuntza prozesua.
- ✓ Boluntarioak Hegoaldeko herrialdeetara bidaltzea.
- ✓ Laguntza eta komunikazioa Hegoaldeko erakundeekin.
- ✓ Boluntarioen itzuleran harrera egitea.

Bere historiaren analisia bat

15 urte hauetan zehar pertsona asko izan dira VOLPA boluntario-programan parte hartu duten pertsonak. Beren profilak, jatorriak eta motibazioak aldatu egin dira, zalantzarik gabe, testuingurua eta programa bera aldatu diren bezalaxe.

Laukian ikus daitekeen bezala, 600 pertsonatik gora izan dira, boluntario-esperientzia Hegoaldean izan dutenak. Gehienak Latinoamerikan izan dira, zenbait kasu Asian izan diren arren eta, azkenaldian, Afrikan ere ari diren aukerak irekitzen.

Lehen urteetan lagun gutxiko kopuruak izan ziren programan sinistu eta esperientziarekin hasi zirenak. Baina laukian ikus daitekeenez, 1994tik aurrera gertatzen da, kudeatutako jende kopurua haztea, aurreko urteko jende kopurua ia bikoiztuz. Jende ugaltze honek 2000 urtera arte iraun zuen, 1997 urtean izan zelarik kopururik handiena, 96 pertsona bidaltzeraino. 96 pertsona horietatik, erdiak pasa, kontzientzia-eragozleak ziren, boluntariotzaren lehen urtean behintzat. Ordezko gizarte-zerbitzua nazioarteko boluntario-programa baten bidez egiteko aukera, boluntariotzaren boomarekin elkartzeak eragin zuen, programan parte hartu zuten jende guztiaren erdia, 1994-2000 urte bitartean biltzea. Urte haue-tantxe, hain zuzen ere, sortu zen azpiegitura sendoagoa, VOLPArentzat bulego espezifiko bat eta pertsona bat izanez programaren koordinatzaile, pertsona guzti hauen bidalketaren eta jarraipenaren kudeaketa errazteko.

18. laukia. Partaide kopurua urteko
eta esperientziarako motibazioak

Urtea	Kontz. eragozleak Ordezko Gizarte-Zerbitzua (OGZ)	Boluntarioak	Guztira (urteko)
1990	-	3	3
1991	-	3	3
1992	2	5	7
1993	9	16	25
1994	19	26	45
1995	36	25	61
1996	29	32	61
1997	49	47	96
1998	17	44	61
1999	-	40	40
2000	-	36	36
2001	-	30	30
2002	-	27	27
2003	-	28	28
2004	-	26	26
2005	-	18	18
2006	-	37	37
2007	-		
GUZTIRA	161	438	599

Boluntarioen profilari dagokionez, 9. taulan ikusten den bezala, 1992tik 1998ra boluntarioen eta kontzientzia-eragozleen nahastea dago. Pertsona hauen adina aintzat hartzen badugu, programaren hasieran pertsona gazteak ziren, baina gaur egun jende nagusiagoa aurkitzen dugu.

Prestatzaileen bidez ikusten da, boluntarioen motibazioak, hasiera batean, aldaketa sozialaren nahia, militantzia, eraldaketa soziala eta sistema aldaketatik abiatzen zirela. Azken urteetan, motibazio hauek gehiago jotzen dute, aldaketa pertsonalaren, zentzua bilatzearen eta norbere burua bilatzearen bidetik.

Aurrez esan izan den bezala, asko dira VOLPAREN kokalekuak denboran zehar (ikus 19. laukiko mapa), 50 kokaleku desberdin inguru, horietako gehienak Latinoamerikan kokatuak. Hauek dira Latinoamerikako lekuak: Bolivia, Brasil, Txile, Ekuador, Guatemala, Honduras, Mexiko, Nikaragua, Panama, Paraguay, Peru, Dominikar Errepublikak eta Venezuela. Alabaina, esan behar da, unean uneko esperientzia batzuk izan direla Kanbodian (Asia) eta, gaur egun, Kamerunen (Afrika) eta Albanian (Europa).

19. laukia. VOLPA programaren kokalekuen irudikapena



20. laukian ikus daitekeenez, 1996-2001 urte bitartean aurkitu dugu idatzizko material lanketa eta sorketa handiena, programa honetan. Memoretan adierazten da probintzia edo korapilo bakoitzak urte honetan egin dituen jardueren berri, eta baita, VOLPA programak, oro har, duen ahalmenaren eta mugimenduaren berri ere. Ikus daiteke, halaber, erabilitako gaien aldaketa eta bilakaera, eta baita beraien egituretan izan den bilakaera ere. VOLPAren hasieratik, bere identitatea, funtzionamendurako barne arautegia sortzea, sareak eta azpi-sareak eratzea eta beren nortasun juridikoa izan dira, programaren identitatean eta antolakuntzan zentratuago zebilen, **lehen etapa** bateko kezka nagusiak.

20. laukia: Urteko Memorien gaien eta egituren azterketa

Egitaraua	Memoria Urterik ez / 1995	Memoria 1996	Memoria 1997 (6 urte)	Memoria 1998	Memoria 2000	Memoria 2001 (10 urte)
Erabilitako gaiak	•	•				
VOLPA Espainia sarearen osaketa			•			
Aukeraketa eta prestakuntza	•	•	•	•	•	•
Ebaluazioa probintziak	•	•	•	•	•	•
Laguntza				•		
Boluntario-ondorengoa				•	•	•
Bidaltzeen bilakaera	•	•	•	•	•	
Erakunde hartzaileak				•	•	•
Topaldiak					•	
Finantzak	•				•	
Etorkizuna – erronkak			•	•		
Batzarretan partehartzearen laukia	•	•	•	•		
Zuzenbideak						•
Kontzientzia-eragozleen memoria	•					

1997 urtean, sortu zeneko bosgarren urtean hain zuzen, VOLPAren estatutuak onartu ziren, eta Barne Ministerioko Erregistro Publikoan, Elkarte bezala, eman zuen izena, 162.725 zenbakiarekin. Identitatearekin batera, proiektuaren kudeaketari dagozkion alderdi guztiak garatu ziren; gai ekonomiko eta finantzarioak, kokalekuekin kontratuak eta lankidetzak hitzarmenak ezarri, boluntarioen aseguruak, eta baita Madrilen bulego zentral bat irekitzea ere. Bigarren etapa, 1998tik aurrerakoa, boluntarioengana eta kokalekuen koordinazioarengana bideratu zen batez ere.


1997 eta 2001eko memoriak, VOLPAren historiako bi une garrantzitsuetara eramaten gaituzte, izan ere, programaren bosgarren eta hamargarren urteekin lotzen baitira. Programaren hasieratik, tartean ziren pertsonen zenbait gai planteatu zituzten, hautatze eta prestakuntza prozesuen inguruan, edo Espainiako lurraldearen barruan, sareen eta azpi-sareen inguruko lanean. Hau garbi islatzen da, memoria guztietan, hutsik gabe, zetorren apartatu batean “Hautatze eta prestakuntza prozesuak” (ni, zu, topaldia), eta baita beste batean ere “Ebaluazioa probintziak-VOLPA sarea”, non sare bakoitzak baloratzen zuen bere urteko lana. Baita boluntariotzaren datuak ere, “Bidalketen bilakaera” helmugako herrialdeetara, epigrafe erreplikatuak dena.

Aldian behin, agertzen dira lan egiten den kokalekuen aipamenak egiten dituzten zenbait alderdi, zenbait memoriatan adieraziak agertzen dira zein diren, eta baita programan etengabeko erronketako bat dena ere, boluntario-ondoreneko lana.

Programaren garapenarekin eta berriazko prestakuntza planarekin batera, prestatzaileen topaketak izan ziren, 1997-2004 urte bitartean egin zirenak, eta boluntario-prestaketaren inguruan sortzen zihozten interesen eta kezken arrastoak erakusten dizkigutenak.

Laburbilduz (21. laukia), beren dokumentu nagusien azterketatik, VOLPA programaren bilakaera garbia ikus daiteke, lehen epe batean identitate eta egitura gaiez arduratua, bigarren aldi batean, pertsonen dagozkien kontuez gehiago arduratzen hasteko; boluntariotza, kokalekuak eta boluntario-ondorenak. Azkenik, boluntario-esperientzia hauen aukera egiten duten pertsonen profilak, eta baita inkulturazio edo kultura-arteko gaitasun prozesuak ere, prozesu honen azken unea dira. Paralelismo bat egin daiteke bere historiako hiru une hauen eta programaren prestakuntza osatzen duten hiru osagai giltzarrien artean.

21. laukia. VOLPA programaren bilakaerako une garrantzitsuenen irudikapena, eta baita, bere prestakuntza programaz, izan daitekeen interpretazioa edo paralelismoa ere



VOLPA programaren tradizioan, ebaluazioa oso alderdi funtsezkoa da, nola prestakuntza prozesuena hala esperientzia berarena. Bidaltzen den pertsona bakoitzak bezala harrera egiten duen erakunde bakoitzak, esperientzian zehar, bi ebaluazio egiten ditu gutxienez. Horietako bat esperientziaren “erdian” egiten da, eta bestea amaieran. Ebaluatu beharreko irizpideak, nola boluntarioarenak, hala harrerako erakundearen berari laguntzeko ardura duen pertsonarenak, antzekoak dira, bakoitzak berezitasunen bat izan arren.

Ebaluazio hauek, nazioarteko boluntario-esperientzian aldaketak sartzeko eta, prestakuntza prozesuetan eta harrerakoetan eta baita VOLPA programan bertan ere, egin daitezkeen hobekuntza lerroak identifikatzeko balio dute. Azken hau hala gerta dadin, programan bertan, urteroko ebaluazio txostenak egin izan dira. Urteko txosten deskribatzaileak dira, VOLPAko boluntarioek estatu mailan egin dituzten ebaluazioei buruz, eta baita harrerako erakundeek egin dituztenak ere.

22. laukia: Ebaluazioa boluntarioaren ikuspegitik

	1998 - 1999	1999 - 2000	2000 - 2001	2002 - 2003
Jasotako/bidalitako ebaluazio kopurua (% partaidetza)	28 / 40 (%70)	12 / 24 (%50)	7 / 9 (%77)	4 / ?
EGINDAKO LANAREN BALORAZIOA				
Balorazio orokorra	7,6	7,2	-	-
Erakundea	7,4	8,1	8,0	-
Arduradunekin harremanak	7,2	8,6	-	-
Lana bakarrik/taldean	6,4	7,1	8,2	-
Lagunekin harremana	7,6	8,1	8,5	-
Ekarpenak onuradunei	6,4	6,7	8,2	-
ESPERIENTZIAREN BALORAZIOA				
ERLIJIOSO EDO ESPIRITUAL ALDETIK	%65ak ertainetik oso aberatsera baloratu du	7,6	-	-
BIZITOKIA				
Bizitoki egokia	8,5	9,1	8,2	-
Lagunekin harremana /elkarbizitza	8,4	7,2	9	-
Bizitokiaren kokapena	8,7	8,6	8,8	-
OSASUNA				
Elikadura egokia	7,4	7,5	8,3	-
Behar besteko elikadura	8,4	9,0	8,5	-
Gaixotasunak (kolikoak, dengea, estresa, sukarrak, infekzioak, gripe)	%65	-	%86	-

	1998 - 1999	1999 - 2000	2000 - 2001	2002 - 2003
INKULTURAZIOA				
Zailtasuna/Prozesua	6,6	7	6,4	-
Integrazio maila	7	7,7	7,8	.
Kulturaren/errealitatearen ezagutza	6,7	7	-	
Hizkuntzaren ezagutza	4,5	5,4	-	-
VOLPA				
Prestakuntza	6,9	8,1	-	-
Laguntza	5,1	7,5	-	-
Koordinazio bulegoaren babesa	5,0	8	-	-
Jatorriko sarearen babesa	6,4	8,8	-	-
Boluntario-ondorenekoaren interesa	7,8	8,1	-	-

Nolanahi ere, aurreko laukian aurkeztu diren erantsitako ebaluazio txostenez gain, boluntario eta harrerako erakunde bakoitzak, ebaluazioak egin dituzte urte hauetan guztietan. Ebaluazio hauen ondorio gisa nabarmen daiteke, boluntarioek oso positiboki baloratu dutela esperientzia hau, izan ere, pertsona haztea ekartzen baitu eta, zenbait kasutan, itzulitakoan, bizitzeko era aldatzeko gogo sakona. Alabaina, badaude zenbait alderdi bereziki positibotzat aipatzen direnak esperientzia honetan, eta beste batzuk hobetzeko proposamen gisa, ondorengo lauki honetan aurkezten diren bezala.

23. laukia. Alderdi positiboak eta hobetzeko alderdiak, boluntarioen arabera

Alderdi positiboak

- ✓ Positiboki baloratzen dute auzo herrikoietan bizitzea eta esperientzia beste boluntarioekin partekatzea.
- ✓ Oso positiboki baloratzen dira beste etorri-aldi batzuetako boluntarioen ekarpenak.
- ✓ Baloratu egiten da, bai gogoetarako materiala eta baita denbora ere. Gogoeta hauek taldean eztabaidatzearen falta sumatzen dute.
- ✓ Oso positiboki baloratzen da eta oso beharrezkotzat aipatzen, harrerako herrialdean dagoen denboran norbaitek lagun egitea.
- ✓ Beharrezkotzat sentitzen dute, hurbiltasuna egotea, beren egonaldi garaiko laguntzan: ikustaldiak, gutunak...

Hobetzeko alderdiak

- ✓ Harrerako erakundearen informazio gehiago.
- ✓ Bete beharreko zereginaz, joan aurreko eta joan ondorengo prestakuntza.
- ✓ Ordu-tegi argia eta definitua.
- ✓ Kokalekuek bulegoetan, errealitatearekin lotura galtzearen irudipena ematen dute.
- ✓ Barnetegietako kokalekuek, zaildu egiten dute, lan-orduak eta aisia-orduak bereiztea.
- ✓ Erakundearen eta funtzionamendu sistemaren ezagutza falta sumatzen da, batez ere, kontzientzia-eragozleen artean.

Harrerako erakundeek edo kokalekuek, osagai asko jartzen dituzte jokoan, boluntario-esperientzia hauek egin ahal izateko. Kasu gehienetan, muga asko dituen testuinguru batean, eta berariazko lekua, zeregina eta laguntza eskaintzen dituzte. Gainera, ostatua eta mantenua eskaintzen dituzte, eta kultura-arteko elkarrizketara eta harrera egiten dioten pertsonaren interpelaziora irekitzen dira.



Boluntariotzak guretzat, geografian, kulturen eta garapen mailan desberdintasunak dituzten, baina gizatiarrago, justuago eta senideago izan nahi duten bi munduren arteko topaketaren ahalegina esan nahi du. Egungo garapen proposamenak pasiboki onartzen ez dituzten bi mundu, mundua nola antolatu den onartzen ez duten bi mundu. Boluntariotza da guretzat, era eraikitzailean aurrera egiteko bideak bilatu behar dituen "odol berria", indarraren eta bilaketaren bideratze lana. Boluntariotza, topaketa esperientzia gisa ikusten dugu, topo egiten duten bi kulturak eraldatzen dituena, biek berritzen dituzte erreferentzia markoak, biek berritzen dituzte balioak, biek egiten dute apustu mundu berri baten alde.

Carmen de los Ríos.
Ilo-Perú, VOLPA memoria 2001.

Kokalekuek, beren aldetik, nazioarteko boluntariotzaren ekarpenak oso aberasgarriak izan direla aitortzen dute. "Joan-etorriko" bidaia horretan, aitortzen dute, nazioarteko boluntariotzari esker lor dezaketela:

- ✓ Erakunde anitzekin harremanetan sartzea eta beren zeregin eta programak hobeto zabaltzea.
- ✓ Lankidetzeta beste ikuspegi batetik ikustea. Boluntarioak solidaritatearen testigantza zehatza dira, beste kultura eta herrialdeetan adierazten den bezala. Gainera, beren erdigunetik irteten laguntzen die, beraiek aberastuta irteten diren beste kultura eta errealitate batzuk ikusten.
- ✓ Herrialde hartako profesionalentzat egiten zailago diren garapen jardueren bidez aberastu. Tokiko pertsonekin harremanetan sartzeko duten motibazio eta prestutasun handiari esker, beraiek gabe bultzatzea ezinezko litzatekeen proiektuak eragitea lortzen dute.
- ✓ Tokiko boluntariotza sustatu.

Topaketa honen eta beste kultur giltzarri desberdin batzuen bidez irits gaitzeko beren balorazioetara, Urteko Ebaluazioetan adierazten den bezala (24. laukia).

24. laukia. Ebaluazioak harrerako erakundeen edo kokalekuen ikuspegitik

	1998 - 1999	1999 - 2000	2000 - 2001	2002 - 2003
Jasotako/bidalitako ebaluazio kopurua	9 / 25 (%36)	16 / 22 (%73)	5 / 8 (%63)	5 / ?
ESPERIENTZIARI BURUZKO BALORAZIOAK				
Aparteko laguntzaren bizipena/Ekarpen baliagarria	Bai	9,4	-	%100
Eragozpen nagusiak	Inkultrazioa Denbora (1 urte) Zaila laguntzea	Erritmoak Izaera Hizkuntza Lan gehiegi	-	Inkultrazioa
Akonfesionaltasunari dagokio	4		-	-
VOLPA-rekin komunikazioa	6,9	5,5	%100 ona	Oso positiboa
Itxaropenak bete	8	8,8	8,4	Goi-maila/Bikain
Boluntario-prestakuntza	7,7	9,1	-	-
Bidaltzeen kudeaketa	8	7,4	-	-
Jarraipena	6,2	5,4	-	-
Boluntario-hautaketa	8,5	8,8	-	-
Sintonia erakundearen helburuekin	8,4	-	-	-
Boluntarioen ekarpena helburuei	8,7	-	8,6	Oso positiboa
Ordezkarria herrialdean	5,7	5,3	Ez zegoen	-

	1998 – 1999	1999 – 2000	2000 – 2001	2002 – 2003
BOLUNTARIOEI BURUZKO BALORAZIOAK ERAKUNDE HARTZAILEEN ALDETIK				
Erantzukizuna lanean	8,7	9,7	-	Goi-mailakoa
Ordutegi eta egutegiak bete lanean	8,3	9,7	-	-
Dinamismoa lanean	7,9	9,8	-	-
Talde-laneko gaitasuna	8,1	9,2	-	-
Harremana onuradunekin	8,7	8,8	-	-
Harremana lankideekin	8,5	9,7	-	-
Harremana arduradunekin	8,8	9,5	-	-
Sintonia erakundearen helburuekin	8	9,7	-	-
Erakundearen arau eta ohiturak errespetatzen ditu	8,8	9,5	-	-
Gogoeta egiten du bere lanaren zentzuaz	8,7	9,4	-	-
Ekarpena proiektuaren hobekuntzari	7,8	9,7	-	-
Iraunkortasuna, jarraipena eman bere lanari	8	9,5	-	-
Errepikatzea-Sormena	7,8	8,8	-	-
Geldia-Aldaketa	7,1	9,2	-	-
Gatazka-Adiskidetzea	7,7	8,5	-	-
Mendetasuna-Autonomia	8,1	9,1	-	-
Berekoikeria-Eskuzabaltasuna	8,7	9,6	-	Goi-mailakoa
Intolerantzia-Tolerantzia	8,4	8,9	-	-
Indibidualismoa-Taldea	7,9	9,2	-	-
Ez inkulturazioa-Inkulturazioa	7,4	9,7	-	Goi-mail jarrera
Asistentzialismoa-Sustapena	7,7	9,6	-	-
Entzutea-Hitz egitea	-	59-41	-	-
Ekintza-Gogoeta	-	64-36	-	-

Inkultrazioa VOLPAn

Inkultrazioa, VOLPAn arabera, prozesu zaila baina ezinbestekoa da: sozializazioaren eta elkartrukearen zentzuan, denbora eta dedikazioa eskatzen dituena; zaila, desberdinarekin topo egitea eta elkarriketatzea eskatzen duelako; eta ezinbestekoa, inkultrazioerik gabe ez delako topo egiterik gertatuko, aldeetako bat (bestea edo norbera) aldatu nahia baizik.

Horregatik, programa honetatik, ondorengo puntu edo alderdi giltzarrietan lan egitera bultzatu nahi da:

- ✓ **Kontzientzia:** beste kultura batekin topo egitea, aniztasunarekin eta desberdinarekin topo egitea da. Baina baita norbere buruarekin topo egitea ere bada. VOLPA programak kontzientzia lantzea, geure kulturaren eta nortasunaren barneratzea eta autokritika lantzea, eta dauzkagun mugak aitortzea defenditzen du, prestakuntza prozesuetan. Diruan, familian eta denboran daude mendebaldeko kulturaren oinarriak. Diruak agintea eta botere finantzarioa ematen ditu, familia, bere zentzu nuklearrean, giza harremanen oinarri afektibo gisa ulerturik eta denbora, bertan ekoizteko, aurreikusteko eta kontrolatzeko entitate gisa. Alabaina, hurbiltzen garen errealitatea desberdina da ikuspegi fisikotik: geografia, klima, soinuak eta, fisikoaz haratago, kultur ikuspegi batetik; janaria, bizitzeko erak, harreman sozialak izateko, komunikatzeko, hitz egiteko eta hitzen moldeak. Hizlarietako batzuek “begiradaren distantzia”, “kodigo sozialen distantzia” bezala bataiatzen dute. Identitate artean bakarrik izan daitezke elkarriketak: “Nik neure nortasuna aitortzen ez badut, zapaldu egiten dut, ez elkarriketarik egin”. Beraz, desberdintasunen jakitun izatea da: distantzia geografikoa, janaria, ohiturak, erlijioa, hizkuntza, kode sozialak. Aurkaria eta desberdina, eta berak izan ditzakeen sentimenduak onartzea da, eta bestetik, gardentasuna gure aldetik, eta pertsona bakoitza den baino gehiago dela ez erakutsi nahi izatea: atzerritarra edo desberdina.
- ✓ Erakarmenetik eta **interesetik** topo egin: erakarriz eta aipamena eginez bakarrik bideratu eta onar dezakegu diferentzia.
- ✓ **Apaltasuna errespetura** eta ezustearen gaitasunera daramalako: kultura oro baliotsua dela eta denetatik ikas dezakegun uste osoa izan. Apaltasunak astiro joatean laguntzen digu, ikasgairik eman gabe eta arretaz parte hartuz. Ikusi, iritzia eman, ekin eskema bizi. Hau da, aurreiritziak eta iritziak zintzilik utzi.

✓ **Egoteaz arduratu Egiteaz baino gehiago (“Hortxe Egotea”- hor egon):** nahiz eta boluntarioek batzuetan denbora galtzen ari direla sentitu eta lanak aurrera azkar atera beharraren larritasunak presionaturik ibili. Kokalekuek diote, egitera jende ugari joaten dela jada, baina bertan egotera datozenak falta direla.

25. laukia. Boluntarioek duten ezagutzen oharmena esperientziaren aurretik eta ondoren

1. Kultura artekotasuna: Ezagutzak	Batezbestekoa		
	aurrez	ondoren	bilakaera
1. Kulturaren definizioa eman, eta bere osagaiak eta konplexutasunak deskriba nitzakeen	2,61	3,84	1,22
2. Harrerako kulturaren arau eta tabu funtsezkoak ezagutzen nituen (adib. agurrak, janzteko erak, portaerak, etab.)	1,82	4,08	2,26
3. Hizkuntzan eta kulturaren nireen ondoan, aldeak aurki nitzakeen	2,49	3,92	1,42
4. Ohartzen nintzen kultur arazoengatik estresatuta noiz nengoen eta gainditzeko bideak bilatzen nituen	2,12	3,49	1,36
5. Kulturaren eta hizkuntzaren nire ikasketa hobetzeko teknikaren batzuk ezagutzen nituen	2,00	3,33	1,32
6. Neure portaerak konpara nitzakeen funtsezko alorretan harrera egiten zidaten pertsonenekin (adibidez sozial arloko eraginetan, oinarrizko ohituretan, aldi baterako orientabideetan, etab.)	2,39	3,73	1,34
7. Nire kulturaren eta harrerakoan eragina zuten eragile historiko eta sozio-politiko garrantzitsuak aipa nitzakeen	2,22	3,73	1,51
8. Beste kulturatarako egokitze etapan ereduak deskriba nezakeen	1,78	3,41	1,63

1. Kultura artekotasuna: Ezagutzak	Batezbestekoa		
	aurrez	ondoren	bilakaera
9. Harrerako kulturaren ikasketa eta egokitze prozesu edo estrategiak aipa nitzakeen	1,65	3,29	1,63
10. Nire harrera herrialdeko jendearen elkar eragineko estilo ohikoenak deskriba nitzakeen, bai ingurune sozialetan eta baita profesioletan ere (adib. egoera rolak, talde-lana, arazoak konpontzea, etab.)	1,73	3,61	1,87
11. Neure kulturaren portaera moduak kontrasta nitzakeen, harrerako kulturarekin	1,90	3,61	1,71

26. laukia. Boluntarioek duten jarreraren oharmena esperientziaren aurretik eta ondoren

2. Kultura artekotasuna: Jarrerak	Batezbestekoa		
	aurrez	ondoren	bilakaera
12. Harremana harrerako kulturako kideekin (saihestu gabe ala nire herritarrekin bakarrik gelditzen nintzen)	3,45	4,49	1,04
13. Harrerako kulturako pertsonengandik ikasi. (adibidez beren hizkuntza, beren kultura...)	3,55	4,37	0,81
14. Harrerako kulturako pertsonentzat era onargarrian saiatu komunikatzen eta portatzen	3,61	4,33	0,71
15. Harrerako kulturarekin izandako topaketak eragindako nire emozio eta egoeren jakitun izan	2,71	3,96	1,24
16. Zirkunstantzia desberdinetan rol egokiak hartu (adibidez familian, boluntario gisa)	3,04	4,08	1,04
17. Kulturaren alderdi berriez interesa erakutsi (adibidez balioak, historia, tradizioak, etab ulertu)	3,45	4,22	0,77
18. Harrerako herrialdearen portaera, balio, jarrera eta komunikazio moduetan dauden desberdintasunak ulertzen saiatu	3,37	4,35	0,97
19. Nire portaera egokitu harrerako herrialdean era egokian komunikatzeko (adibidez portaera ez-hitzezkoa eta beste alorrak)	3,08	4,20	1,12
20. Nire erabakiek harrera egin zidaten pertsonen artean duten eragina eta ondorioak aztertu	2,69	4,24	1,55

2. Kultura artekotasuna: Jarrerak	Batezbestekoa		
	aurrez	ondoren	bilakaera
21. Aurre egin, ulertzeko, adierazteko, elkarri eragiteko eta jokatzeko era desberdinei	2,92	3,88	0,95
22. Era alternatiboak erabiliz eragin elkarri, nahiz eta ni ohituta nengoen eta nahi nituenetatik oso bestelakoak izan	2,63	3,76	1,12
23. Nire aukeraren inplikazio etnikoak onartu (erabakien terminoetan, ondorioetan, emaitzetan, etab.)	3,33	4,10	0,77
24. Ez epaitu, kultura-arte ingurune batean, komunikatzeak berekin duen konplexutasuna antzeman baino lehen	3,08	4,22	1,14

27. laukia. Boluntarioek duten ahalmenen oharrena esperientziaren aurretik eta ondoren


3. Kultura artekotasuna: Ahalmenak	Batezbestekoa		
	aurrez	ondoren	bilakaera
25. Malgutasuna erakutsi nuen harrera-kulturako pertsonekin elkarreraginean	3,24	4,41	1,16
26. Nire portaera, janzteko era, etabar behar beste egokitu nituen, harrera egin zidaten pertsonak ez mintzearren	3,06	3,96	0,89
27. Harrera-kulturaren eta nire kulturaren arteko desberdintasunak ikusteko gai nintzen	3,06	4,49	1,42
28. Harrerako hizkuntza eta kultura ikasteko estrategiak erabili nituen	2,69	3,61	0,91
29. Harrerako kulturari, zenbait egoera sozialetan, era egokian, elkar eragiteko gaitasuna erakutsi nuen	2,94	4,18	1,24
30. Estrategia egokiak erabili nituen harrerako kulturara egokitzeko eta nire estres maila gutxitzeko	2,80	3,88	1,08
31. Harrera-kulturako hizkuntza ikasten lagundu zidaten eredu, estrategia eta teknikak erabili nituen	2,31	3,37	1,06
32. Ikusten nuen, nola nire portaerak eragiten zuen nire ikasketan eta harrera-kulturako pertsonekin izaten nituen harremanetan	2,84	3,98	1,14
33. Harrera-kulturari buruzko nire ezagutzak erabili nituen, nire estiloa eta elkarreragin pertsonala eta profesionala hobetzeko	2,67	3,92	1,24
34. Kultura-arteko gaizki ulertuak eta gatazka konpontzen lagundu nuen, sortu zirenean	2,69	3,82	1,12
35. Programatik itzuleran neure kulturaren bizitzara egokitzen laguntzeko estrategiak erabili nituen	2,18	3,18	1,00

28. laukia. Boluntarioek duten kontzientzia maila esperientziaren aurretik eta ondoren

4. Kultura artekotasuna: Kontzientzia	Batezbestekoa		
	aurrez	ondoren	bilakaera
36. Nire kulturaren eta harrera-kulturaren arteko aldeak eta antzekotasunak	2,82	4,39	1,57
37. Aurkako erreakzioek, alde horien aurrean, izan zezaketen eragina (adib. beldurra, isekak, nazka, handiustea, etabar)	2,94	4,33	1,38
38. Nola harrera-kulturako zenbait zirkunstantziak eskatu zidan beste pertsona batzuekin nituen harremanak aldatzea	2,57	3,73	1,16
39. Harrera-kulturako kideek nola ikusten ninduten eta zergatik	2,49	4,14	1,65
40. Nola neu ere kulturak, neure ohitura eta lehentasunek baldintzatutako pertsona bat nintzen	2,73	4,04	1,30
41. Harrera-kulturako kideek nola erantzun zuten nire nortasun sozialaren aurrean (adib. arraza, klase soziala, generoa, adina, gaitasunak, etabar)	2,78	4,22	1,44
42. Aniztasuna harrera-kulturaren barruan (adib. arraza, klase soziala, generoa, adina, gaitasuna, etabar)	2,57	4,12	1,55
43. Portaera indibidualak, kultura osoaren ordezkarietat orokortzean gerta daitezkeen ondorioak	2,61	4,14	1,53
44. Nire erabakiak eta beren eraginak (zerk egiten ninduen erakargarriago harrera egin zidaten pertsonentzat)	2,69	4,14	1,44
45. Nire balio pertsonalak, eta nola eragin zuten auzi etikoei aurre egiterakoan eta hauek konpontzerakoan	2,92	4,29	1,36


4. Kultura artekotasuna: Kontzientzia	Batezbestekoa		
	aurrez	ondoren	bilakaera
46. Harrera egin zidatenek nirekiko zituzten erreakzioak eta beren kultur balioen isla	2,76	4,00	1,24
47. Berariazko egoeretan nola islatu ziren nire balioak eta nire etika	2,88	4,27	1,38
48. Kultur estiloen aniztasuna, hizkuntzaren erabilerak eta beren eragina baldintza sozialetan eta lanekoetan	2,61	4,39	1,77
49. Kultura-arteko garapenaren neure maila	2,45	4,06	1,61
50. Lan egiten nuen jendearen (programako beste partehartzaileak, anfitrioiak, laneko lagunak, etabar) kultura-arteko garapen maila	2,63	4,02	1,38
51. Nire kultura-arteko garapena lagundu edo oztopatu zuten eragileak, eta gainditzeko era desberdinak	2,43	3,88	1,44
52. Kultura-arteko egoera batean, neu, nolako komunikatzailea, koordinatzailea edo bitartekaria ikusten nintzen	2,43	3,90	1,46
53. Besteek, kultura-arteko egoera batean, nolako komunikatzailea, koordinatzailea edo bitartekaria ikusten ninduten	2,31	3,80	1,48

Ondoren, egindako azterketaren grafiko eta testigantza adierazgarrienak eta esanguratsuenak aurkezten ditugu.



Gehien errepikatzen dena, kultur arloarekin zerikusia duena da (gogora dezagun, boluntarioek integrazio maila handia sentitzen zutela puntu honetan). Noski, ez dira boluntario guztiak horrela ebalatuak izan, baina bai batezbesteko handia. Kokalekuek zenbait kasutan nabarmentzen dutena: girora eta laneko eskemetara egokitze falta; gizarteratzeko zailtasunak, errealitate desberdinarekiko ulertze eta errespetu falta, Inkulturazioan prestakuntza falta, mendebaldeko irizpideetan oinarrituz epaitzeko joera, beren jokatzeko moldearekin bat ez datozen jarrera, jokaera eta ohiturenganako errespetu falta...

30. laukia. Gaitasunen bilakaera adinaren arabera



Nola ahaztu haien barre algarak eta haien aurpegietan emetzen ziren ilusioak, ikustean, ama-aberrik zetorren gringo meharrak, ez zekiela aitzurrarekin lanean, landareak bereizten, eguraldiaren eta itsasoaren erritmoak ezagutzen. Nire eskastasuna eta ahuldadea partekatsetik, eta ez nire sendotasunetik, garatu ziren giza harreman distiratsuak. Hasiera batean, eragozpena zirudiena Kristoren Etxeak nire ahalmen teknikoak ezin esplotatu izana, zorte bikaina bilakatu zen. Hain zuzen ere, dena bihurtu zen gizatiarrago.

Raúl.
Txile, VOLPA memoria, 2001.

31. laukia. Taldearen datu estatistikoak sexuaren arabera, ezagutza, jarrera, ahalmen eta kontzientzia mailan esperientziaren aurretik eta ondoren


Estruktura	Sexua	Pertsonen Zenbakia	Batez bestekoa	Desbideratze tip.	Batezbestekoaren akats tip.
Ezagutzak Aurretik	G	28	3,6266	0,62561	0,11823
	E	21	3,6580	0,68930	0,15042
Jarrerak Aurretik	G	28	4,0824	0,40484	0,07651
	E	21	4,2857	0,50509	0,11022
Ahalmenak Aurretik	G	28	3,7597	0,51498	0,09732
	E	21	4,0649	0,63840	0,13931
Kontzientzia Aurretik	G	28	3,9583	0,55568	0,10501
	E	21	4,2963	0,50257	0,10967
Ezagutzak Ondoren	G	28	2,1656	0,51785	0,09786
	E	21	1,9307	0,44434	0,09696
Jarrerak Ondoren	G	28	3,1813	0,66146	0,12500
	E	21	3,1026	0,93275	0,20354
Ahalmenak Ondoren	G	28	2,7597	0,57614	0,10888
	E	21	2,7879	0,87449	0,19083
Kontzientzia Ondoren	G	28	2,6111	0,50670	0,09576
	E	21	2,6905	0,78873	0,17211



VOLPA esperientziak bete betean eragiten die hori bizi izan duten pertsoneri, pertsona mailan eraldatzen eta hazten laguntzen die, eta munduari beste era batera hasten dira begiratzen eta giza harremanak bizitzen, beste begirada bat, bizitzeko era bat, munduan izateko eta egoteko beste jarrera bat eraginez. Kultura-arteko topaldiak, maila kolektibo eta sozialean eraldatzen eta sentikortzen du pertsona bera, eta eraldaketa sozialaren eragile izateko sentikortzen eta konprometitzen du justizia eta bakearen bilaketan.

Ascen Aguilar:
Banakako elkarriketa, 2007.


32. laukia. Gaitasunen bilakaera VOLPA programara sartu diren epearen arabera.



Ahal dela, kultura bereberek pertsonak izan beharko lukete, antzeko esperientzia bat igaro (bi kulturak eta kultur desberdintasunak ezagutzen dituztenak) eta arrakastaz gainditu dutenak.

Héctor Mo.
Begiradak HEGOALDETIK elkarriketak, 2007.

33. laukia. Auto-oharmenen eta besteen hautematearen arteko aldea



Maila pertsonalean, balio eskalaren aldaketaz hitz egiten da. Nabarmentzen dira, halaber, elkarbitzen den kulturaren harri-dura eragiten duten alderdiak ere, adibidez pazientzia, hutsegiteko edo erabakiak hartzeko beldurra. Beste aldaketa garrantzitsuak bizitzeko eta lan egiteko erritmoa, denboraren kontzeptu hain desberdina, zeure esperientziaren arabera ikusten duzunaren erlatibotasuna. Oro har, "premia falta" baloratzen da, bizi diren herrialdeko jendearen artean ikasi eta hautematen dena. Esperientzian zehar bizitzan hautematen den batasun zentzua eta koherentzia ere nabarmentzen da. Egun bakoitzak dituen alderdi guztiak era armoniatsuan bilduak daudela dirudi.

VOLPAren ebaluazioari buruzko txostena, 2000-2001.

Amaiera gisa, aipa daiteke, nahiz eta boluntarioaren esperientziarekin kultura-arte gaitasunaren alderdi guztiak hobetu, jarrera aldaketan aurkitzen dela aldaketarako zailtasun handiena. Bestetik, adierazi beharra dago, bi gai garrantzitsu daudela, sarri askotan, boluntarioek eta harrera egiten dutenek pertzepzio berdina ez daukatenak: boluntarioen lanaren balioa eta beren kultur txertaketa. Boluntarioek askotan sentitzen dute, beren lana ez dela baliozko ekarpena, eta bestetik, bere hango kulturarekiko ezagutza eta errespetua ezin hobeak direla. Erakundeek, aldiz, ez dute boluntarioaren lanaren kexurik, baina bai beren kultur sentikortasun faltarena. Prestakuntza garaian puntu hauek lantzea komeni da, sakontzea inkulturazioaren gaian, boluntarioaren ikasteko prestutasunean eta ez “ematen” bakarrik, alderdi profesionala neurri bat bezala ulertzen, baina ez bakarra eta ezinbesteko bezala, etab.





6

Ondorioak eta
gomendioak



Ondoren aurkezten ditugu, nazioarteko boluntariotza eta kultura-arteko gaitasuna, bi gai hauen hurbilpenetik ateratako ondorioak. Ateratako ondorioak aurkezten ditugu, ondoren, zenbait printzipio eta gomendio izendatzeko, VOLPAREN boluntario-programarako eta baita, izaera orokorragoko beste zenbaitentzat ere, nazioarteko boluntarioen edo inplikazio sozialen beste programetarako eta kultura-arteko elkarrizketetarako.

Nazioarteko boluntariotza eta kultura-arteko gaitasunari buruzko ondorioak

1. Nazioarteko boluntario-esperientzien ugaritzea. Nazioarteko boluntariotzak, azken urteetan bultzada kuantitatibo handia izan du, eta lankidetzako nazioarteko programetan inplikaturako pertsona kopuruan bezala programa kopuruan bertan islatzen dena, eta hauek gero eta anitzagoak eta diziplina desberdin ugariri lotuak daude, adibidez, ekonomia, psikologia, zuzenbidea, hezkuntza, soziologia edo osasuna.

Nazioarteko boluntario-programen garrantzia eta zereginaren gero eta **erakunde mailako aitortza** handiagoa ikusten da. Aitormen hau nabarmen agertzen da, erakunde publikoen gisa honetako esperientzien sustapenean, hain aipatua den hiritar globala eraikitzeko asmoz, eta era honetako esperientziak kultura-arteko elkarrizketaren eta desberdinaren ulermenerako ate irekiak direla onartuz. Alabaina, gisa honetako programentzat arau babes eta laguntza ekonomiko gutxi dago, programa hauek oso egoera ahulean ipintzen jarraituz.

Alderantziz, boluntario-esperientziei **gizarte zibiletik eta gobernuz kanpoko erakundeetatik** emandako laguntzaren eta sustapenaren historia luzea da. Boluntariotza **inplikazioa, partaidetza eta konpromiso sozial etengabekoa duen prozesu** gisa ikusten da. Nazioarteko boluntariotza, ikuspegi honetatik,

beste pertsonarekin eta berdintasuna, errespetua eta justizia soziala bezalako balioetan, une bat gehiago besterik ez da konpromisozko etengabeko bizitza horretan.

2. Bilakaera boluntarioen motibazioetan. Erakunde publikoek eta gizarte zibilak, oro har, dituzten jarrera-hartze desberdinen aurrean, motibazioen bilakaera bat ikusten da zuzenean inplikaturako boluntarioen artean. Desberdintasunaren eta beste pertsona ulertu eta hari laguntzearen aurkikuntzara zuzendutako motibaziotik, boluntarioa bere horretan ulertzera zuzendutakora, bizitzaren zentzuaren bila. Aldaketa hauek egokitze eta doitze berriak eskatu dituzte boluntarioen programen hautatze irizpideetan, prestakuntza materialetan, beren eginkizunen eta kokalekuen hautaketan. Horregatik, oso garrantzi handia du, programa bakoitzaren helburuak argitzeak, eta horien arabera erabakitzeak, boluntarioen hautatze irizpideak, prestakuntza egokia eta esperientzialdiaren iraupena. Era horretan, tokia izango dute bai boluntarioa eta, heda-penez, baita bidaltzen duen gizartea ere, sentikortzea helburu nagusia duten programak eta baita eraldaketa globalagoak eta sakonagoak bilatzen dituzten programak ere, boluntarioa aldaketa sozialerako eragile gisa ulertuz.

3. Boluntariotzaren eremuan ekintza gehiago dago gogoeta eta sistematizazioa baino. Boluntario-esperientziak ekintzan zentratuago daude, sistematizazioan, ikerketan eta beroien erregistroan baino. Horregatik behar da, **gogoeta gehiagoren erronka, programaren helburuei buruz, eginkizunak mugatzeari buruz**, edo tartean diren eragileek jokatu beharreko rolei buruz, eta baita beroien **eraginaren ebaluazioari eta neurketari** buruz ere.

4. Kultura-arteko gaitasunaren zeregina boluntario-esperientzietan. Kultura-arteko gaitasuna, XXI. mendeko gizarte pluraletan bizitzeko ezinbesteko tresnatzat eta nazioarteko boluntario-programen partetzat aitortzen da, izan ere harreman zuzenean jartzen baititu historia pertsonal eta kultur baliabide oso desberdinak. Kontzeptu korapilatsua da benetan, zalantzaragarria bai gutxienez, lankidetzeta eta boluntariotza munduko pertsona askorentzat, ideologia ez oso zuzena eta interes guttiz ekonomiko eta enpresakoetara lotzen baita. Alabaina, berorren azterketa arretatsuago batean, dibertsitatea bereganatzeko kontzeptura hurbiltzen gaitu, eta bere interesguneak enpresakora baino haratagoko eremuetara hedatzen joan dena, hala nola, heziketa, lan soziala edo osasun publikoa esate baterako.

Kultura-arteko gaitasuna funtsezko osagaia da nazioarteko boluntario esperientzietan. Esan nahi da, abilezia (trebetasun) eta jarrera (sentikortasun) mul-

tzoa dela norbanakoari, kulturalki anitzak diren testuinguruetan, era egoki eta eraginkorrean jokatzen eta komunikatzen laguntzen diona. Kontzeptu konplexua da, harreman sozialetan eta talde-artekoetan maila desberdinetan erabil daitekeena. Berdintasunezko eta errespetuzko harremanak eskatzen ditu.

5. Prestakuntza, boluntario-programen funtsezko osagai gisa. Nazioarteko boluntario-esperientzien hazkundeak berari loturik eraman du bertan inplikaturako eragile desberdinen sentikortasuna areagotzea ere, partehartzearen kalitatea hobetzeko premiaren inguruan, onartzen den inplikazio eta erantzukizun mailaz aparte. Zentzu honetan, gogoetak gero eta garrantzi handiagoa hartzen du, prestakuntzaren zereginaren inguruan. Boluntariotzak, borondate onezko ekintza hutsa izateari uzten dio, gutxieneko gaitasunarekin burutzen den ekintza izateko. Pierolaren hitzetan, “boluntariotzaren arau magikoa prestakuntza gehi borondatea da” (1998, 24. or.).

Adituen kopuru garrantzitsu baten iritzian, prestakuntza, hiru aldi betetzen dituen **laguntza prozesu** gisa ulertzeak oso garrantzi handia du: esperientziaren **aurretik, bitartean eta ondoren**. Erakunde askok, atzerriko egonaldia aurreko eta bitarteko unea aupatzeko joera duten bitartean, gure ustez, jatorriko herrialdera itzultzeak duen garrantzia nabarmentzen da, eta nola, atzerrian gertatu den ikasketaren ondorio gisa, jarraitu egiten duen bere garapenak, kultura-arteko esperientzia amaitu eta gero ere.

Nazioarteko boluntario-programen ekarpen nagusienetakoa **prestakuntza eta esperientziaren arteko konbinazioa** da, ikasketa esanguratsu eta bizitza osoan egindakoaren osagai funtsezko eta ezin banatuzko bezala. Esperientziaren zeregina, ez bakarrik, lankidetzeta edo lagun egitea burutzeko aukera gisa, pertsonaren balioak eta jarrerak prestatzeko eta eraldatzeko aukera gisa baizik. Esperientziak, kontaktu hipotesian (Allport, 1954) oinarritzen du bere prestakuntza indarra, berak dioenez, aurkakoak diren edo gatazkan dauden talde sozialetako norbanakoek zenbat eta kontaktu gehiago izan, orduan eta aurkako estereotipo eta antipatia gutxiago izango dute elkarren artean. Ezaugarri desberdineko pertsonen arteko kontaktuak hobetu egingo lituzke talde barruko harremanak, pertsona inplikatuagoak eta besteekin batera berdinetik berdineran lan egiteko prest daudenak lortuz.

6. Terminoen aniztasuna, esanahien aniztasuna. Ikerketaren egiaztapen argienetako batek alor semantiko adostuaren falta aipatzen du. Hortik, erabilitako terminologia definitzeko, zehazteko eta adostasunetara iristeko premia. Kontzeptu askok duen zama ideologikoaren jakitun, beharrezkoa da, hasieratik bertatik, horietako askori emandako esanahiaz jarrera hartzea. Honela bada,

Boluntarioria – Borondatezko lankidea – Prestazio emailea; Kultura artekotasuna – Kultura aniztasuna; Iparralde – Hegoalde edo Inkulturazioa – Kultura arteko Gaitasuna – Gaitasun globala bezalako hitzak. Irtenbide bat eskaintze aldera, amaierako glosategi bat proposatzen da⁴, oinarritzko hitz eztabaidatuenak jarritz, taldeak adostutako esanahiekin batera.

15 urteko esperientzia: VOLPA programa

7. VOLPA programaren bilakaera historikoa. VOLPA iraupen luzeko (2 urte) Nazioarteko Boluntario programa da, eta honako hauek dira bere helburu nagusiak:

1. Topaketa bideak ahalbidetu, herrien eta pertsonen arteko hurbilketaren bidez.
2. Balio berriak eta bizi-konpromisoa eragin boluntarioen artean.
3. Sentiberatzearen eta aldaketa sozialaren eragileen prestaketa sustatu.

VOLPA programaren hiru osagai giltzarri identifikatzen dira: protagonistengan zentratutako prestakuntza (ni, zu, topaldia), esperientzia bera heldutasunerako eta eraldaketa pertsonal eta sozialerako bide bezala, eta lagun egitea, esperientzia ororen zeharkako osagai gisa.

VOLPA programa 1991an sortu zen eta 2006an ospatu zuen bere 15. urtemuga. Ikerketa hau, urtemuga horren harira egin zen beste jarduerak batzuen artean. 15 urte hauetan zehar, guztira, Iparraldeko 600 pertsona inguruk, iraupen luzeko nazioarteko boluntario-esperientziaren bat izan dute, Hegoaldeko 50 kokaleku baino gehiagotan.

Eskura ditugun dokumentuen azterketatik: urteko memoriak, urteko ebaluazio txostenak, prestatzaileen topaketak eta InterVolpa aldizkaria; eta baita egin ditugun elkarriketekin (8 Iparraldean eta 5 Hegoaldean), eta 2007 urtean zehar izan ditugun hiru ospakizun topaketetan ere, VOLPA programa dinamikoa eta bizia dela esan dezakegu, honako aldaketa eta bilakaera hauek ikus daitezkeelarik bertan:

- ✓ **VOLPA erakunde gisa:** programa hau testuinguruaren errealitate berrietara egokitzen joan da eta “bere garaia umea” dela baieztatu dezakegu, bere

⁴ CD erantsian kontsulta daiteke.

errealitatean oso presente dauden funtzionatzeko eta antolatzeko gakoak erabiltzen baititu: sareko lana, aitormen juridikoa elkarte gisa edo 1992 eta 1998 urteen artean Ordezko Gizarte Zerbitzuaren (OGZ) irudia bereganatuz.

- ✓ ***VOLPA programaren gertaera edo une giltzarriak***: hirualdi bereiz daitezke oso argi, bost urte ingurukoa bakoitza, erakundearen baitan aldaketarik esanguratsuenak gertatzen direnak.

1991tik 1996ra doan lehen epealdian, ***programaren identitatea eta egitura*** definitzean oinarritzen da erakundea (alde logistikoak eta finantzazioa, barne arautegiak, hautaketa irizpideen definizioa, prestakuntza eta materialak egitea, eskaintza zabaltzea, boluntarioekin eta kokalekuekin hitzarmenak egitea...). Epealdi hau, programa elkarte gisa eratzean burutzen da, bere izapide juridikoarekin eta koordinazio bulegoa izanez.

1997tik 2001era doan bigarren epealdian, ***programaren sendotze*** aldia, batez ere ***VOLPAko pertsonengan*** oinarritzen da, nola bi urtetan Hegoaldeko herrialdeetan eginkizunak burutzeko prest dauden boluntarioengan, hala bidaltzeaz, hautatzeaz eta harrera egiteaz arduratzen diren pertsonengan. Arrazoi horrengatik, gai nagusiak dira, esperientzia horretan boluntarioek izango duten ibilbidearen diseinua (aurretik, bitartean, ondoren), beren prestakuntza, hautaketa eta kokalekuekin koordinaturiko lana, eta baita itzulera ere, jatorrizko ingurune eta gizartera berregokitzeko arduraz izanez. InterVolpa aldizkaria sortu zen tartean inplikaturako eragile guztien arteko informazio-bide bezala, eta baita boluntario-ondorenerako topaketa, adierazpide eta gogoeta gune bezala ere. Kokalekuekin, ikustaldiekin eta baterako laguntasunaren bidez sendotzen da.

VOLPA, boluntario-programa gisa sendotzen da, boluntario-fofoetan parte hartzen hasten da eta erreferente bilakatzen da bere esperientziaren proposamena eta prestakuntzaren proposamenari esker. Bestetik, boluntario-programa gisa bakarrik definitzea erabakitzen du, eta epealdi honetan gertatzen da Ordezko Zerbitzu Soziala egiteko etorri ohi ziren pertsonak etortzeari uztea ere.

Epealdi hau izan da idatzizko memoria biltzea nabarmen erraztu duena eta elkarte eta programaren koordinazio bulegoa izatearekin bat dator.

2001tik 2006rako lehen epealdi batean, testuinguru soziala boluntario boom haren “itzuleran” bezala aurkitzen da, eta testuinguru honekin batera VOLPA bera ere antolaketa eta partehartze mailako krisian sartzen da. Une horretan boluntario-irudiaren eta programaren birplanteamendua egiten

da, adibidez, sektorea profesionalizatzeko joera dago, borondatezko lankidearen irudia sortzen da eta erakunde publikoak ere berriazko lankidetzak programak eskaintzen hasten dira. VOLPAk, lorpen garrantzitsuak izan zirenak galtzen ditu programa gisa: koordinazio bulegoa desagertzea, lankidetzako beste erakunde zabalagoetan sartzea, memoria sistematikoaren eta idatziaren galera, berriazko dokumentaziorik eza, eta horrekin batera, programaren nortasuna desagertzen ari den sentipena erakundearen inplikaturako pertsonentzat.

Baina krisia orotan ohi denez, programek ere lortzen dute beren heldutasuna, beren benetako nortasuna eta direnaren eta ez direnaren definizioa; VOLPAn, sarean lan gehiago egiteko eta deserakundetzeko garaia hasten da. Ahalegin eta kezka garrantzitsua ikusten da, inkulturazioan edo kultura-artearen gaitasunean, norberaren hazkundean eta elkarriketa pertsonalean, eta horiek berekin dituzten gaitasunetan batez ere. Egin beharreko lana, batez ere, ***boluntarioen gaitasunez eta espezifikagoak diren kultura-artearen gaitasunez*** gogoeta egitera zuzentzen da. Sumatzen da halaber, kokalekuen esparrua Latinoamerikaz kanpoko kontinenteetara zabaltzeko kezka ere. Aldaketa nabarmentzen da epealdi honetan parte hartzen duten boluntarioen profielean ere, adinez nagusiagoak dira eta, bestea aurkitu eta bilatzeko prozesuetan baino gehiago, bizitzaren zentzuaren bila dabiltzanak dira, argi zehazturiko motibazio pertsonalekin.

- ✓ ***Ebaluazioaren garrantzia VOLPAn:*** alde teorikoan ikusi da nola boluntario-espereziak ekintzan gehiago oinarritzen diren sistematizazioan, ikerketan eta beroien erregistroan baino. Alabaina, ahalegin berezia ikusten da VOLPAn, esperientzia eragile guztien aldetik ebaluatzeko: boluntarioak eta harrerako erakundeak edo kokalekuak, eta programaren ikuspegi globalagoa izateko horrela. Bestetik, partaideen ebaluazioak bere eragina du bai prestatzaileen prestakuntza bileretan eta baita prestakuntzaren edukietan eta metodologian ere.
- ✓ ***Hitzen boterea VOLPAn:*** VOLPAn nortasunaren ezaugarri nabarmenetakoa hizkuntza eta berriazko terminologia dira: inkulturazioa, justizia, boluntarioria, pertsona, kokalekua, edo “bizi guztirako xahutuak” edo “hortxe egotea” bezalako esamoldeek, bere hiztegi berezia osatzen dute. VOLPA eta bere erakundea hitzen karga ideologikoaren jakitun dira, eta erabili egiten dituzte, edo baita sortu ere, egokiera edo egoerei izena emateko. Zenbaitetan, denek ezagutzen dituzten hitzak erabiltzen dituzte, hala nola, pertsona, boluntarioria, baina berotasunez kutsatuta, eta baita

borrokaz eta eraldaketa indarrez ere, beste batzuetan aldiz, egoerak ulertzen laguntzen diguten hitzak “asmatzen” dituzte: bestearekin egoteak duen garrantzia, egiteak baino gehiago (“hortxe egotea”) edo pertsona osoa eta bizi ikuspegia inplikatzeko duen konpromisoaren premia (“bizi guztirako xahutuak”).

8. VOLPA programaren ebaluazioa. Oro har, dokumentazioan idatziz adierazita gelditu diren ebaluazioak, edo elkarrizketen edo topaldien bidez lortu direnak, oso positiboak dira. Boluntariotzak esperientziaren **alderdi positiboentzat** nabarmentzen ditu:

- ✓ Helmugako herrialdeko pertsona eta erakundean harrera.
- ✓ Errealitateari aurpegia jartzen laguntzen duen kultur topaketa.
- ✓ Pertsona harremanak izan dira, egonaldian aurkitu eta bizitako aberastasun iturri emankorrenak.
- ✓ Elkartrukea, bere zentzurik positiboenean, boluntarioek eta kokalekuek ikasi eta jaso dutena. Bi aldeek galtzen dute, boluntarioak bere “laguntzaille” zeregin hutsa eta kokalekuak “onuradunarena”, biak ere laguntza iturri eta ikasteko gaitasuna dutenak bihurtzeko.
- ✓ Norbere buruarekin topo egitea eta asebetetze pertsonala. Esperientziak norbere buruaz gogoeta egiteko aukera ematen du, pertsona bakoitzak ikasteko, indar gunez eta ahulunez jabetzeko, eta baita heldutasun pertsonalaz ere.

Nola boluntarioek hala kokalekuek esperientziari eta programari garrantzia eta balioa ematen diote. Aitortutako balio nagusia, esperientziak eta VOLPA programak inplikaturako bizitzak eraldatzeko duten gaitasunean oinarritzen dira. Pertsonak aldatu egiten dituzte beren bizi-ohiturak eta beren etorkizun-bizitzarako hartzen dituzte horko ikasbideak. VOLPA, zentzu honetan, esperientzia garrantzitsua bihurtzen da, baina, azken batean, boluntario-programa bat gehiago da pertsonaren konpromiso-bidean. Itzuleran, boluntarioak aldaketaren eta sentsibilizatzearen eragile bihurtzen dira beren inguru hurbilenean eta, kasurik gehienetan, beste boluntario eta laguntza programa berrietan inplikatzeko dira.

9. Inkulturazioaren bilakaera VOLPA programan. VOLPAK beste kultura batekin harremanean sartzeko gaitasuna bezala definitzen du **inkulturazioa**, beste kultura baten erabileran, ohituretan eta bizitzeko eran partaide izateko gaitasuna. Bestearen unibertsorekin harreman fisikoan sartzeko da, beste pentsatzeko,

sentitzeko eta egiteko era batzuekin elkar bizitzea. Inkulturazio arrakastatsua-
ren emaitza integrazioa edo egokitzea da, eta bizitako esperientzia galtze,
bilatze, irabazte eta muntaien bidaia gisa aitortzea. Inkulturazioa, pertsonari
une edo aldi desberdinetan laguntzen dion prozesua da, eztei bidaiatik hasi eta
berreskurapenera, eta denbora, pazientzia, irekitasuna eta entzuteko gaitasun
handia behar dituena.

VOLPAN, osagai giltzarri gisa aitortzen da inkulturazioa, kultur aniztasunaren
ezaugarria duten pertsona eta gizarteekin elkarrizketatzeko helburura hurbil-
tzeko. Elkarrizketarako osagai giltzarri gisa ez du erakundeak bakarrik ikusten,
eta hala adierazten du bere memoria eta ebaluazio txostenetan (adierazle eta
eranskin espezifikoeekin), baizik nola boluntarioek hala kokalekuek identifika-
tzen dute, boluntarioen eta harrerako pertsonen artean zailtasunik handienak
eta iritzi eta ikuspegi desberdinenak sor ditzakeen alderdi gisa.

Terminoan eta berari emandako esanahian bilakaera bat frogatzen da, VOLPA
inkulturazio terminoa “*bestea bezala izan eta bizi*” bezala ulertuz eta aztertuta-
ko azken aldian, *kultura artekotasunari* egiten dio aipamen, zeinaren arabera
“*gizaki gisa berdinak aitortzen gara baina ibilbide pertsonal eta kultural des-
berdinekin*”.

Egindako ikerketak aztertzen ditu, boluntarioen, kokalekuetako pertsonen eba-
luazioak, elkarrizketa sakonak eta boluntarioek esperientziaren aurreko eta
ondorengo ikuspegi arabera erantzundako kultura-arteko gaitasun galdeke-
tak. Ondorio nagusienak hauek dira:

- ✓ Esperientziaren ondorengo hobekuntza oharmena kultura-arteko gaitasu-
naren eragile edo osagai guztietan. Esperientziaren ondoren era nabarmen-
ean hobetzen dira gaitasunaren alderdi guztiak: ezagutzak, jarrerak, ahal-



Une honetan emandako erantzunen kakoak hurbiltasuna-
rengatik zeuden emanak. Hurbiltzean beste funtsezko osagai
bat gertatzen da: boluntarioa eragiten edo hunkitzen uzten
da. Hunkipen horrek barruari eragiten dioten prozesuak sortzen ditu, gu
aldarazten gaituztenak. Gizakiekin aritzeak gizatiar egiten gaitu.

Jose María Vaca.
Hezitzaileen Topaketa, 2001.



Ipar-Hego boluntarioritza, bere adierazpide baita VOLPA, 1991 urtetik, adierazle garbia da kultura-arteko harremanak gehiago direla aberastasun-iturri gatazka-iturri baino.

Boluntario esperientzia bakoitzak baiesten digu, bestearekin, desberdina eta berdina, bat etortzeak bi aldeei laguntzen digula hazten eta aberasten. Errealitate justuagoa eraikitzen elkarrekin ibiltzeak denok duintzen gaituenaren beste baiespen bat dela. (...) uste osoa baitugu, Hegoaldeak, boluntarioei ematen dienaren bidez, asko daukala irakasteko Iparraldeari, honek, desberdintasuna eta pobrezia betikotzen dituen egitura haiek alda ditzan.

VOLPA memoria, 1998.

menak/abileziak eta kontzientzia. Aldaketa hauek nabarmenagoak dira kontzientzian eta ezagutzan jarreretan eta abilezietan baino.

Boluntarioek igarritako hobekuntza honek kontaktuaren hipotesia baietsiko luke, berak esaten baitu, VOLPA programak, edo 2 urteko esperientziak Hegoaldeko herrialde batean, laguntza esperientziak burutuz eta beste kulturetako pertsonekin kontaktuan, kultura-arteko edo inkulturazio gaitasuna hobetzeko balio izan duela.

- ✓ Inkulturazioa edo kultura-arteko gaitasuna beste aldagarri batzuen arabera hobetzen da. Ondoren adierazten diren hobekuntzak, estatistika aldetik oso esanguratsuak ez badira ere, mostraren neurriarengatik eta konparaketetan sortzen diren azpi-taldeen ondorioz gerta daiteke hau ziur asko:
- ✓ Gazteenak (26 urtera arte) ezagutzetan eta kontzientzian dute hobekuntza, baina jarreretan eta ahalmenetan ez da ia alderik nabarmentzen.
- ✓ Emakumezkoek gaitasun maila handiagoa erakusten dute jarreretan, ahalmenetan/abilezietan eta kontzientzian, azken hau esanguratsua delarik.
- ✓ Lehen epealdian esperientzia izan zutenek bilakaera nabarmenagoa izan zutela diote kontzientzian, ezagutzetan eta ahalmenetan/abilezietan.
- ✓ Kultura-arteko alde zurreko harremanik gabeko pertsonen bilakaera hobea dute ahalmenetan/abilezietan, jarreretan eta kontzientzian, nahiz

eta aldaketa honek “erregresio efektuan”⁵ izan bere azalpena. Gaur egun aldez aurreko esperientzia eta kontaktu gehiago daude Hegoaldearekin eta espero izandako bilakaera, beraz txikiagoa da.

- ✓ Azkenik, nahiko koherentzia aurkitzen da pertsona bakoitzak hautemandakoen eta kokalekuek hautemandakoen artean. Egia baldin bada ere, gertakari berak irakurketa desberdinak eragin ditzakeela. Adibidez, boluntarioak eta kokalekuak ez datoz bat, boluntarioak dituen ezaugarrien pertzepzioan, hala boluntarioek beren burua eraman handiko, malguago eta umore zentzua dutela ikusten duten bitartean, kokalekuek balore gutxiago ematen diete arlo horietan eta gehiago autonomian. Onartzen da balorazio eta pertzepzio irizpide desberdinetik, pertsona desberdinak eta kultura desberdinak abiatzen direla gertakari berberak ikustera eta baloratzerara. Normala denez, zenbaitzuk oinarri desberdinetan ere jarriko dute arreta, adibidez, guk malguago izaten ikasten dugu, baina, behar bada, haiek ez gaituzte ikusten behar bezain malgu.
- ✓ Laburtuz: VOLPA esperientziak kultura-arteko gaitasunaren neurri guztietan (ezagutzak, kontzientzia, ahalmenak/abileziak eta jarrerak) lagundu du era esanguratsuan aurreratzen, nahiz eta aldaketarako alderdirik zailena eta neketsuena jarreraren mundua izan nonbait. Zehatzago esateko, pertsona gazteenak (26 urte arte), emakumeak eta kultura-arteko esperientzietan aurrez esperientziarik izan gabeak azaldu dira aldaketarako prestuen, gisa honetako esperientzia baten ondoren.

10. VOLPA programaren eraginak. VOLPA erakundeko pertsonak, beren agirietan eta sakon egindako elkarrizketetan baiesten dute, esperientziak eraginak dituela, ez pertsonalki bakarrik, baizik eragina duela nola harrerako gizartean hala bidaltzailean. Eragin hauek honela laburbiltzen dituzte:

- ✓ **Pertsona:** VOLPA esperientziak bizitza aldatzen du bizi-proiektu baten par-taide izaten hasiz. VOLPA inflexio-puntu bilakatzen da, bertan bereizten direlarik “lehen eta geroa”. Programak pertsonalki zalantzan jartzen laguntzen du, topaldian inplikaturako pertsonak aldatzen, bere balioak (justizia, espiritualtasuna, komunitatea) aldatuz, eta beste begirada bat izaten,

⁵ “Erregresio efektua” deitu izan denaren arabera, baldintza okerragoetan abiatu ziren pertsonak, esperientziaren ondoren, aldez aurreko kultura-arteko harremanak zituztenekin berdintzea lortu dute. Hau da, beste kulturetako pertsonekin harremanak zituzten pertsonak, jarrera, ahalmen eta kontzientzia hobek izanez abiatu dira eta, beraz, beren bilakaera ez da izan aldez aurreko harremanik ez zuten pertsonena bezainbestekoa.

beste bizitzeko era bat, beste aldarte bat. Pertsona batzuk kokalekuan gelditzen dira, itzulera egunik gabe, beste batzuk beren bizitza profesionala birbideratzen dute, beren lanbidean jarraitzen dutenek kultura-arteko alderdiak beren lanpostura ekartzen dituzte.

- ✓ **Gizarte bidaltzailea:** pertsonak beren boluntario-esperientziatik itzultzen direnean, aldaketa pertsonalen sozializatzeko eta irradiazio eragina gertatzen dira, eta hurbileko komunitatearenganako eta talde orokorragoarenganako sentiberatze berria. Boluntarioa eragile bihurtzen da aldaketarako eta eraldaketa sozialerako.
- ✓ **Harrerako gizartea:** harrerako gizartean aberastasun pertsonala eta profesionala ematen dira, bai harrerako erakunde mailan eta baita gizarte mailan ere. Honi gaineratu behar zaio boluntarioaren doakotasun-balioa, boluntarioa horren irudi garbia baita, irudi hau eta ordain ekonomikorik gabe, denen onagatik emateko kulturaren konpromisoa dira, izan daitekeen beste mundu horren etengabeko zehaztapen posiblea, eta jatorri, kultura eta klase sozial desberdinetako pertsonen arteko harreman horizontalak laguntzen ditu.



Hispanoamerikara joateko esperientzia, pospolo bat sutzea bezala izan da. Nire bizitzako aldirik biziena izan da, nire bihotzean sua piztuta utzi didan oparia. Baina su hori orain ezin dugu itzaltzen utzi eta bizirik mantendu beharra dago surtara enbor gehiago botaz. Kultura senide bateko seme-alaba garenez, Amerikak bizi duenaz bus-titzea da gure misioa. Elkarrekin nola hazi gaitezkeen eta hazi behar dugun ikustea da, eta gure inguruan hori hedatzea, indarrez sututako pospolo hori ahuldu ez dadin, urrun dagoelako edo ahaztu egin dugulako. Benetako opa-ritzat sentitzen dut esperientzia hori bizi izana, eta bonboi kaxa bat jaso due-nak bezala, orain, zapore hobea izango dute, nire ingurukoei probatzeko ematen badizkiet.

Felipe Samarán.

Boluntario-ondorenekoa VOLPA - Nikaragua, VOLPA memoria 1988.



Boluntariotzak guretzat, geografian, kulturen eta garapen mailan desberdintasunak dituzten, baina gizatiarrago, justua-go eta senideago izan nahi duten bi munduren arteko topa-
ketaren ahalegina esan nahi du. Egungo garapen proposamenak pasiboki onartzen ez dituzten bi mundu, mundua nola antolatu den onartzen ez duten bi mundu. Boluntariotza da guretzat, era eraikitzailean aurrera egite-ko bideak bilatu behar dituen "odol berria", indarraren eta bilaketaren bide-
ratze lana. Boluntariotza, bat egite esperientzia gisa ikusten dugu, bat egiten duten bi kulturak eraldatzen dituen, biek berritzen dituzte erreferentzia markoak, biek berritzen dituzte balioak, biek egiten dute apustu mundu berri baten alde.

Carmen de los Ríos.

Ilo-Perú, VOLPA memoria 2001.



VOLPA esperientziak bete betean eragiten die hori bizi izan duten pertsoneri, pertsona mailan eraldatzen eta hazten laguntzen die, eta munduari beste era batera hasten dira begiratzen eta giza harremanak bizitzen, beste begirada bat, bizitzeko era bat, munduan izateko eta egoteko beste jarrera bat eraginez. Kultura-arteko topaldiak, maila kolektibo eta sozialean eraldatzen eta sentikortzen du pertsona bera, eta eraldaketa sozialaren eragile izateko sentikortzen eta konprometitzen du justizia eta bakearen bilaketan.

Ascen Aguilar:
Banakako Elkarrizketa, 2007.



Printzipioak eta gomendioak VOLPA programarentzat

1. VOLPA: Historia eta aitortza dituen programa.

Nabarmen gelditu denez, VOLPA nazioarteko boluntario-programa da, etengabeko mugimenduan dagoena, bere egitura, metodologia eta prestakuntza uneko garaietara egokitzen dituen. VOLPA programak 15 urteko historia du eta era batera edo bestera bertan parte hartzen duten pertsonen eta nazioarteko beste boluntario-programen aitortza ere badu.

Bere indar guneetan nabarmentzen dira:

- Prestigioa eta aitormena Espainian eta Latinoamerikan.
- Jesusen Lagundiaren sostengu instituzionala.
- Giza kapital baliotsua: Prestatua, konprometitua eta nazioarteko boluntariotzaren izaeraren eta eginkizunen jakitun.
- Kudeaketa sistematizata.
- Aldez aurreko hautatze irizpideak, elkarriketa psikologikoa eta prestakuntza ikastaroa topaketaren eta profil horren garapen gune gisa.
- Prestakuntza saioak hiru protagonistengan oinarriturik (Ni, Zu eta Topaldia), urtebeteko iraupenez, metodologia parte-hartzaileak erabiliz, norberaren auto-ezagutza, itxaropenak eta beste pertsonaren ezagutza lantzen laguntzen duelarik.
- Prozesuaren alderdi nagusiei buruzko intuizioa: aurrekoa, bitartean eta ondoren, laguntasuna, kultura artekotasuna, itzulera, ebaluazioa prozesu osoan zehar.
- Kokalekuan bertako pertsona baten eta bidaltze erakunde-ko tutore baten laguntza pertsonalizatua. Inguruarekiko kontraste aukera boluntario-ohien eta InterVolpa aldizkariaren bidez, erreferentzia, adierazpide eta topaketa gune gisa.
- Etengabeko ebaluazioa, une desberdinetan eta eragile guztien aldetik.
- Nazioarte mailako ezarpena.

- Kokalekuen sarea.
- Joan behar den herrialdeko pertsona eta erakundeen harrera.

VOLPA programa laguntzen duten testuinguruko osagaien artean aipatzen dira:

- Kanpoko finantzazio aukera erakunde mailan indartzea.
- Nazioarteko boluntariotzaren proposamen berriak sendotzea eta bistaratzea.
- Harremanak sendotzea harrerako edo kokalekuetako erakundeekin.
- Etengabeko esperientzia lotura beste prestakuntza eta boluntario-programekin.

VOLPA 1en Gomendioa

- Programaren punturik indartsuenen jakitun izan eta hauek sendotu.
- Programaren beraren erakundetze maila berraztertu, ebaluazioak, prestakuntzak eta elkarren arteko gogoetak egin ahal izateari dagokionez.

2. VOLPA: Garaien arabera aurreratzeko prest dagoen programa.

Programaren punturik indartsuenekin batera, alde ahulagoak ere ikusten dira, ebaluazioen, ospakizun topaketen eta ikerketen bidez:

- Programaren garapen plana falta da.
- Sinergiak falta dira beste boluntario-esperientziekin.
- Prestakuntza prozesua eguneratzea falta da.
- Ez dago pertsona laguntzaile eta prestatzaileen ordezkapenik.
- Sakabanaketa, boluntarioen itzuleran.
- Sinestunen eskea, gero eta urriagoa.
- Kokalekuetatik egin eta erantzun gabe dauden eskariak.

Eta baita ingurunearen baldintzak ere, beraren garapena mugatzen dutenak:

- Aldaketa kulturala: mugikortasuna eta ezegonkortasuna, laguntza esperientziak arinkeriaz hartzea, kontsumorako joera baita esperientzietan ere.
- Boluntarioen profil aldaketa: denbora gutxiago izatea hartzeko, esperientzia hauek lanbidean barneratzeko zailtasunak, itzulerakoan baldintzak segurtatu beharra...
- Boluntarioek zailtasunak dituzte, itzuleran, gizarte bidaltzai-learen solidaritate egituretan txertatzeko orduan.
- Babes "profesional" eta ekonomiko gehiagoko boluntario eta lankidetzaren programen ugaritzea.

VOLPA 2ren Gomendia: Berrito erakundetzearen erronka

- VOLPA programa, egitura fisiko eta berariazko giza baliabidez hornitu berriro, programaren jarraipena eta oroimena bermatzeko aldera.

VOLPA 3ren Gomendia: Boluntarioen erronka

- Boluntarioaren irudian sakondu, aldaketaren eragile potentzial gisa, proiektuen helburuek sentiberatze aldia gainditu eta ondorengo konpromisoa garatzea bila dezaten. Era honetan, boluntarioa, Ipar-Hego harremanen berezitasun diren egiturazko injustiziaren aurkako borrokan inplikaturako eragile biderkatzailerik bihurtuko litzateke. Horretarako, beren esperientziak eta testigantzak txerta daitezke prestakuntza programetan eta sentiberatze jardueretan, eta baita lan-taldeetan ere.

VOLPA 4ren Gomendia: Lagun egitearen erronka

- Definitu, Iparraldean eta Hegoaldean pertsona zehatzek izan dezatela horren ardura, eta lagun egite pertsonalizatua, eta prozesu osoan zehar, bermatuko duten jarraibideak eman. Zentzu honetan, probetxu gehiago atera behar zaie informazio eta komunikazio teknologia berriei.

- Berriazko komunikazio guneak sustatu esperientziatik itzuleran espresatzeko eta boluntariotza-ondorengo lagun egitea indartzeko.
- Belaunaldi bereko boluntarioen arteko laguntza sareak eratu.

VOLPA 5en Gomendioa: Prestakuntzaren erronka

- Boluntarioen prestakuntza prozesua egokitu eta indartu, edukien eguneratzea, programen garapenean eta esperientzia hauetan parte hartzen dutenen profilaren bilakaeran, sortzen doazen premien arabera baloratu. Zehazki, beharrezko gertatzen da:
 - a. Pertsonak boterez jabetzea ahalbidetzen duten metodologia partehartzailertan era indartsuagoan eragin dezaten.
 - b. Pertsona etorkinak prestakuntza prozesuan txertatzea.
 - c. Gai afektibo/sentimental eta/edo sexualari heltzea.
 - d. Espiritualtasunaren neurria eta horrek berekin duen zeregina lantzea.
 - e. Giza-eskubideen eta bakerako heziketaren inguruan gogoeta egitea, gatazkan dauden herrialdeetan.
 - f. Eta azkenik, genero ikuspegiaz gogoeta egitea.
- Informazio xeheagoa eman harrerako herrialdeari buruz, harrerako edo kokalekuko erakundeaz eta egin behar duen lanaz.

VOLPA 6ren Gomendioa: Eragin sozialen sistematizazioaren erronka

- Nazioarteko boluntario-esperientziak ebaluatzen eta sistematizatzen uzten duten mekanismoak bilatu, eragina ebaluatzen duten tresnak adierazleekin gauzatu, nola Iparraldean hala Hegoaldean.

Printzipio eta Gomendio orokorrak Nazioarteko Boluntario-programentzat

1. printzipioa: Ikuspegi globala eta integratzailea

Boluntario-esperientziek, pertsona etorkinen antzeko rol batean kokatzen dute boluntarioa. Neurri desberdinetan egindako esku-hartzeak eta prestakuntzak ikuspegi global eta integratzaile batetik abiatu behar dute, prozesuan inplikaturako pertsona guztiengana iritsi ahal ziateko:

- a. Lekualdatzen den pertsona (boluntarioa, etorkina): iristen den herrialdean eguneroko bizimoduan integratzeko, hizkuntza ezagutzea eskatzen du lehenbizi, oinarritzko ezinbesteko baldintza gisa, eta baita leku horretako ezaugarri kulturalak eta ohiturak ere.
- b. Harrera egiten duen pertsona: beharrezkotzat jotzen da, ez etorri denaren bertako kulturaren ezagutza bakarrik, baizik baita sakontzea eta berorri buruzko aurreiritzi, orokortze eta estereotipoen jakitun izatea ere, horietatik abiatuz, egoera eta testuinguru bikulturalagoak, eta azkenik, kultura-artekoak lantzeko eta eratzeko.

Alde guztiak biltzen dituen esku-hartzeak bere egiten ditu kontaktuaren, harremanaren eta elkartrukearen printzipioak, eta baita harreman horretako giza-eskubideen eta desberdinarenganako errespetuaren balioak ere.

1. Gomendio Orokorra

- Partehartzeko bideak eta lekuak sortu eta protagonista guztiak prozesuan nahastu: boluntarioak, prestatzaileak, harreragileak.

2. Gomendio Orokorra

- Boluntarioen esperientzia berriak bultzatu eta lagundu: Ipar-Hego, Hego-Hego, Hego-Ipar.

2. printzipioa: Boluntarioaren profila

Nazioarteko boluntariotzak gai izan behar du pertsona arteko egoerei arrakastaz aurre egiteko, bere egitekoa burutu ahal izateko. Boluntario-esperientzien eta programen hazkundeak berekin du programaren helburuak hobekien beteko dituztela uste diren pertsonak hautatzea.


Ikerketa zentroetako egileak bat datoz, ezaugarri pertsonaletan eta izaera kognitibo, afektibo eta portaerazko gaitasunen bilduma batean oinarriturik dagoen gaitasun profila erabakitzeko (Fantini, 2007; Serco, 2004). Gutxieneko adin batek abiatzen da, baina oinarrian behar besteko heldutasun psikologiko eta pertsonaletik. Ulertzen da profil horretan aldatzen eta eboluzionatzen joan daitezkeela pertsonak, eta garrantzia berezia du horretan boluntario-esperientzietan aurrez duen ezagutza edo historiak.

Laburbilduz, honako ezaugarriak jaso daitezke:

- **Egokitzeko abileziak:** beste kultura batean bizi eta lan egiteko baldintza eta erronkei aurre egiteko abilezia maila pertsonalean, profesionalean eta familiarrean.
- **Pertsonenganako errespetua eta apaltasuna:** beste kultura bateko pertsonekin errespetua eta harreman positiboa erakutsi, hitzeko eta ez-hitzeko komunikazioan. Sentimendu sakona beste pertsonak eskubidea dutela beren balioak, ohiturak eta praktikak izateko eta haiekiko errespetua ez galtzeko. Jakitun izan errespetua era askotara adieraz daitezkeela kultura bakoitzean. Apaltasuna tokiko testuinguruaren ezagutzari buruz, eta beharrezko den guztia ikasteko gogoz, eta baita galdetzeko prest ere, ondorioetara iritsi edo erabakiak hartu baino lehen.
- **Autoestimua:** elkarreraginean, balio pertsonalaren ikuspegi baikor eta sineskorra izan. "Besteez" ongi pentsatu eta onartu izateko itxaropena izan.
- **Enpatia:** intuizioz, beste pertsonen, egoera jakinetan, zer pentsatu eta senti dezaketen ulertzeko gai izan, eta beste pertsonaren mundua eta bizipenak ulertuko balira bezala jokatu. Sinpatia, bestearenganako kezka eta interesa. Beste pertsona eta kulturei buruzko sentimendu, nahi eta pentsatzeko erak

modu egokian erabiltzeko gai izan. Beste pertsonen sentimenduak edo balio sistemak ez hondatzeko kezka izan.

- **Tolerantzia anbiguotasunari:** argitasun falta eta anbiguotasuna onartzeko gaitasuna izan eta, egoera berri eta anbiguen aurrean, era eraikitzailean aurre egin, egonezin txikiz edo ageriko ondorezik gabe erreakzionatuz. Ustekabeakoaz eta ez oso ezagunaz gozatzeko gaitasuna izan.
- **Dedikazioa eta konpromisoa:** konpromiso pertsonal eta profesional handia beste kulturaren izandako egitekoan eta bizi-esperientzian.
- **Buru irekitasuna:** norbere pentsatzeko modua era ireki eta egokian azaltzeko borondatea, eta baita besteena onartzeko ere.
- **Harrerako herrialdearen eta bere kulturaren ezagutza:** harrerako herrialdearen eta bere kulturaren ezagutza izatea, eta ezagutza hori etengabe areagotzeko jarrera.
- **Auto-ezagutza:** norbere buruaren jatorriaren eta aurrekariaren ezagutza, eta baita bere motibazio, indar gune eta ahuluneak ere.
- **Entzute aktiboa:** beste pertsonari entzuteko, bere lekuan jartzeko eta komunikatzen ari daitekeenaz interpelatzen uzteko gaitasuna.
- **Kontzientzia komunikatiboa:** abilezia hizkuntza esamoldeak eta kultur edukiak elkarlotzeko, komunikazio eredu bat baino gehiago ezagutu eta haiekin jakinaren gainean lan egiteko eta baita norbere hizkuntza adierazpideak aldatzeko ere.
- **Kultura-arteko komunikazioa:** beste kulturekin era eraginkorrean komunikatzeko ahalmena.
- **Portaeraren malgutasuna:** norbere portaera egoera eta eskakizun desberdinetara egokitzeko ahalmena, behar ez diren gatazkak saihestuz.
- **Harremanak eratzea:** harreman sozialerako behar diren abileziak, bai maila profesionalean eta baita maila pertsonalean ere.



3. Gomendio Orokorra⁶

- Boluntario-programa bakoitzerako eskatzen den boluntarioaren profila identifikatu, horrek dituen helburuen arabera.

4. Gomendio Orokorra⁷

- Programaren antzemate, prestakuntza, lagun egite eta ebaluaziorako tresnak sortu, itzuli eta egokitu.

3. printzipioa:
Aldaketa
prozesua eta
transformazio
pertsonala:
prestakuntza
eta
esperientzia.
Ikasketa
esanguratsua
eta bizitzan
zehar

Nazioarteko boluntario-programek beren helburuen artean izan ohi dituzte pertsonen eta bidaltzen duen gizartearen sentiberatzea eta kontzientziatzea, eta baita harrerako gizartearen transformazioa eta aldaketak sortzea ere. Pertsonen aldaketa eta transformaziorako ezinbestekoa da prestakuntza eta esperientzia, biak batzea.

Nazioarteko boluntario-prestakuntzak alor desberdinak hartzen ditu (hizkuntzak, ikasketa teknikoak...), besteak beste, kultura-arteko gaitasuna nabarmentzen da iraunkor gisa. Prestakuntza, pertsonarengan aldaketa sakon eta iraunkorrek eragiteko gai izan dadin, garrantzitsua da lagun egite prozesu bat bezala ikustea, eta pertsonak kultura-arteko esperientzian igarotzen dituen etapa desberdinak hartzen dituen: aurretik, bitartean eta ondorengo. Erakunde askok, atzerriko egonaldien aurretik eta bitartean egiten den ikasketa prozesua azpimarratzera jotzen duten bitartean, gure ustez, jatorrizko herrirako itzulerak duen garrantzia azpimarratu nahi dugu, eta nola, atzerrian gertatutako ikasketak, jarraitu egiten duen bere garapenean kultura-arteko esperientzia amaitu eta gero ere.

Oro har, boluntario-prestaketa "aurretik", proiektua antolatzen duen elkartearen ardura dela uste da, baina, batzuetan, harrerako erakundearekin akordioak egiten dira, prestakuntza hori koordinatu eta osatze aldera. Garatutako material asko prestakuntza aldi honetan oinarritzen dira eta ardura bateratua dute, kultura-arteko gaitasunaren zenbait faktore eragile

⁶ CD erantsian kontsulta daitezke errekurtsuak.

⁷ Ibidem.


lantzerakoan: aldaketaren eta norbere kulturaren kontzientzia, ezagutza, jarrerak, motibazioak eta itxaropenak, eta baita balioak, portaera eta sentiberatasuna ere. Prestakuntza aldi hau funtsezkoa da, etorriko den atzerriko esperientziarako oinarria osatzen duelako, eta erakundeak aurretik ezarritako profilerak hurbiltzen laguntzen duelako.

Beste ingurune batzuetan bezalaxe, praktikak, esperimentatzeak edo mundu errealarekiko harremanak, ikasketa esanguratsuagoa, norbanako bakoitzaren errealitatera atxikiagoa eta zentzu gehiagorekin uzten du egiten. Eskuaratean dugun gaien, nazioarteko boluntarioen prestakuntzan, alegia, aldaketa eragile bilakatzen da esperientzia, bere baitan, pertsonaren jarrenen alderdian eragiteko gai den neurrian. Alabaina, zenbait "baldintza" betetzen dituzten esperientziak egokiagoak agertzen dira aldaketarako (Amir, 1969):

1. Kontaktua ez noizbehinkakoa edo azalekoa, baizik izaera hurbila eta sakona.
2. Estatus berdina edo botere oreka, elkarreraginean ari direnen artean.
3. Kontaktu atsegina eta indartzailea.
4. Lankidetzak eta lanen garapena baterako helburuak bilatuz.
5. Autoritatea edo aldeko giro soziala eta aipatu kontaktuaren sustatzailea.

Hipotesiak edo Kontaktuaren Teoriak aitortu egiten du, benetan, pertsona arteko harremanen indarra, rolak aldatzeko aukera, "aurrez aurreko" harremanak sortzea, bestearengana irekitzea eta berdinetik berdinerako harreman afektiboak eratzea.

Esperientzian zehar, ez da utzi behar lagun egiteko prozesua. Arrakasta, neurri batean, norbanakoak bere kultura-arteko ikasketa, giro arrotz batean eta bere ohiko babes emozionalen sistemarik gabe, egiteko duen ahalmenean datza. Pertsona



“bitartean” lagunduta sentitu dadin, lagungarriak dira oso gogoeta pertsonalera bideratutako zenbait estrategia, aholkulariarena nabarmendu daiteke, besteak beste, esperientziarako “ispilu” eta kontraste gertatuko baitzaio, jarraipeneko egunerokoa, edo auto-ebaluaziorako galdetegiak eta agurra prestatzeko jarduerak.

Truke-programetan nahiko ohikoa den akatsa, partaideak harrerako herrialdean izango duten kultur talkarako prestatzea da, eta atzerrian egonaldi luzea egin ondoren itzulita-koan gerta dakioken alderantzizko talkarako hainbesteko garrantzirik ez ematea. “Ondorengo” epean lagun egiteko helburuak, zerkusia du, boluntarioaren itzulerako arazoan azterketarekin eta aurki ditzakeen bat ez etortzeekin. Kontuan hartzeko zenbait alderdi nabarmentzen dira, alderantzizko kultur talkaren inguruan, auto-ebaluazioa, elkarriketak eta eztabaida taldeak antzeko esperientziak igaro dituzten pertsonekin, eta martxan jartzea.

5. Gomendio Orokorra

- Prestakuntzaren hasiera beretik aitortu norbere kulturaren balioa eta garrantzia.

6. Gomendio Orokorra⁸

- Aldez aurreko boluntario-esperientziak lagundu auto-kontzientzia, sentibera-tzea eta konpromisoa lortzeko.

7. Gomendio Orokorra

- Esperientziarako aldeko baldintzak eratu, ahal den neurrian: a) iraupen luzekoa, b) pertsonekin harreman zuzena duela, c) harreman horizontala mantenduz, elkarrekin eta berdinen artean lan eginez, eta d) helburu argi eta aurrez definitutakoekin.

⁸ CD erantsian kontsulta daiteke.

4. printzipioa:
Lagun egitea
ikasketaren
ardatz
erataile gisa

Lagun egitea eta aholkulariaren irudia osagai erataileak dira, eta prozesu osoan zeharkako eran aurkezten dira. Hasierako prestakuntzatik hasi, tokian bertan eta esperientzia ari den bitartean lagun eginez jarraitu, itzuleran, bueltan eta jatorrizko lekura egokitutakoan amaitzeko.

Aholkulariaren irudia, boluntario-programa desberdin ugaritako arduradunek baloratu dute, baina beti ez dago argi bere irudiaren eta prestakuntzaren profilik, eta batzuetan inprobisazioan erortzeko eta bere lana gutxiesteko arriskua egoten delarik. Aholkulariak, zalantzarik gabe, eginkizun emozionala dauka, pertsonak laguntza pertsonalizatua eta kanpoko babesa sentitzen ditu.

Hasieran, edo hemen "aurrekoa" bezala bataiatu duguna, hautaketa egiten ari den pertsonak, elkarriketa pertsonalak prestakuntza taldearekin batera, lagundu egiten dio boluntarioari norbanako eta talde moduan. Prozesu hau, argitze, kontraste, norbere buruaren eta bere kulturaren auto-bilaketa prozesua da, bere nahi eta itxaropenak identifikatzen eta objektibatzen laguntzeko. Aldi honetan, aholkularia, aholku emaile bilakatzen da, antzeko esperientzia bat izan ondoren, gai dena konfiantza giroa sortzeko, entzuteko eta galdera egokiak planteatzeko, irakurgaiak emateko eta gogoetak eragiteko, aztertzeko eta ondorioak ateratzeko, planak egiteko eta lor daitezkeen helburuak ezartzeko, lorpenak ebaluatu eta nabarmentzeko.

"Bitartean", gomendatzen den aukeretako bat da, nazioarteko elkartrukean parte hartzen duen bertako pertsona aholkulari bat izendatzea. Aholkulari hau, komeni da partaideari harrera egiten dion erakunde hartzailetik etorria izatea, datorrenaren komunikazio eta elkarreagineko estrategiak hobetzeko. Alabaina, gero eta egokiago ikusten da, bertako aholkulariarekin batera, bidali duen gizarteko erreferentziatzko pertsona bat ere izatea. Aldez aurreko kultura-arteko

esperientziak dituen pertsona honek, kultur eta hizkuntza kodigo berberak erabiliz, pertsona horri sor dakizkiokeen arazoak uler ditzake, eta horiei aurre egiteko estrategiak iradoki.

“Ondorengo” tartean, lagun egiteak erronka izaten jarraitzen du. Auto-laguntza taldeak eta antzeko esperientziak izan dituzten pertsonak funtsezkoak dira, itzulerako egokitu ezin laguntzeko ez ezik, baita ekarri dituen ikasketak bizitza-planean, konpromiso eta inplikazio berrietan erabil ditzan ere, azken batean, boluntario-esperientziaren hasierako helburua lortzeko.

8. Gomendio Orokorra

- Nazioarteko boluntario-programetan lagun egiteko pertsonaren irudia sartu, prestakuntza prozesu osoan zehar (aurretik, bitartean eta ondoren).

9. Gomendio Orokorra

- Egitura bat eman Boluntario-Ondorenari, prestakuntza eta lagun-egite prozesuetan integratuz.

5. printzipioa: Nazioarteko boluntario- esperientziak eraldaketa sozialaren eragile gisa

Nazioarteko boluntario-programek, oro har, eta VOLPA programak, bereziki, beren helburuen artean dute bidezko ez diren egitura sozialetatik beste berri batzuetara, berdinagoak eta bidezkoagoak izango diren aldatzea. Eraldaketa sozialak, esperientzia hauen inguruan gogoeta egitea eskatzen du Iparraldean eta Hegoaldean, eta baita proposamenak testuinguru eta baldintza desberdinetara egokitzea ere. Ikerketan zehar egiaztatu den premia da, boluntario-esperientzia eraldaketa sozial horretara bideratzeko bitartekoak eta mekanismoak izatea. Halaber, premia gisa ikusten da, boluntario-esperientzia hauek neurtzea eta frogatzea nola, berez, eraldaketa sozialerako tresna bilakatzen ari diren, bai gizarte bidaltzailean eta baita harrerakoan ere. Horrek guztiak ahalegina eskatzen du programa hauez arduratzen diren erakundeen aldetik eta baita instituzio mailako laguntza ere.

Boluntario-esperientziek duten eginkizunaren ondoan, kultura desberdinetako pertsonen arteko topaketak eta elkarrizketak, egiten den lan zehatz eta sentiberatze-lan guztiak edo boluntarioak itzuleran duen eragin biderkatzaileak, laguntza eta aitormen gehiago behar luke agintarien aldetik. Amirrek (1969) jada baietsi zuen, kontaktu esperientziek eragin handiago zutela kontaktu horren aldeko giro sustatzailean gertatzen baziren. Beste era batera esanda, babes sozial eta instituzional esplizitua behar da zuzenbide-esparruan, eta integrazioa eta berdintasuna laguntzen duten politika sozialetan, eta boluntarioek, garapenaren lankidetzari dagokionez, betetzen duten lanaren aitormenean. Berez, Nazioarteko Boluntarioaren Urtearen ospakizunarekin ahalegin garrantzitsua egin zen, eta adierazi zen boluntarioaren irudia, nazioarteko boluntarioarena bereziki, aitortzeko premia eta erantzukizuna. Zeregin hau eginkizun dago oraindik hurbileneko erakunde publiko mailan.

10. Gomendio Orokorra

- Boluntario-programa eta esperientzien nazioarteko eta nazional mailako arautegi arautzailea sortu.

11. Gomendio Orokorra

- Programei eta esperientzia aukerei buruz, behar beste informazio eman nazioarteko boluntariotzan.⁹

12. Gomendio Orokorra

- Nazioarteko boluntario-programak dituzten erakundeen artean, lan-sareak eratu, proposamen desberdinen arteko koordinazioa mantentzen ahaleginduz.

⁹ Ekimen hauen eredu garbietako bat ALBOANen difusiorako argitarapen berrian daukagu, (2007). Nazioarteko boluntariotza: topaketa baterako gakoak.

Edozein ikerketa eta ikasketa prozesutan ohikoa denez, galdera batzuk erantzuten diren heinean, galdera berriak, ikusmuga eta ikuspegi berriak sortzen dira. Prozesu honen bukaeran, badakigu zenbait gai erantzunik gabe gelditu direla, eta beste ikerketa batzuk egiteko. Antzematen diren ikerketa lerro berriek erakusten dute, prestakuntzaren eraginari eta nazioarteko boluntario esperientziari buruz, pertsonen kultura-arteko gaitasunean, ikerketa honetako emaitzetan sakondu eta berrestea; neurketa tresnak itzultzea eta balioestea eta beroien ebaluazioa; eta baita gisa honetako esperientzien hurbilpena eta eragin-azterketa ere, nola gizarte bidaltzailean hala harrerakoan, eta harrera-herrialdeetako pertsoneri buruz.

Espero dugu, ikerketa hau ekarpen itzaropentsu eta baikorra gertatzea, herrixka globalaren eraikuntzan, non pertsona orok aurki dezan bere lekua, eta onartua eta kide aktibo sentitu dadin, XXI. mendeko komunitate batean.

**Nazioarteko boluntario-lana:
inplikazioaren eta elkarrizketa
kulturalaren esperientzia.
Ikasteko esperientzia**



Ikerketa hau VOLPAREN 15. urteurrena dela eta egin dugu. Lan honek aztertzen du norberaren ibilbidean eta inplikatuak dauden pertsonen kultura arteko gaitasunean nazioarteko boluntariotzaren esperientziak izan duen eragina.

www.alboan.org

Iruñea

Barañain Etorbidea 2 • 31011 Iruñea
Tel.: 948 231 302 • Faxa: 948 264 308
alboanna@alboan.org

Bilbo

Aita Lojendio 2, 2. • 48008 Bilbo
Tel.: 944 151 135 • Faxa: 944 161 938
alboanbi@alboan.org

Donostia

Erronda Kalea 7, 4. Ezk. • 20001 Donostia
Tel.: 943 275 173 • Faxa: 943 320 267
alboangi@alboan.org